

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko martxoaren 8a / 576. zenbakia



Arrasate-Aretxabaleta Institutuaren **25.** urteurrena

ORAIN ETA HEMEN: EMAKUME LANGILEAREN EGUNA/8 • KIROLA: ALBERTO GARAIRI ELKARRIZKETA/11

Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak,
ateak, oholtzak, leihoak etab.



**AROSZTEGIA
LAGUN**

Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baseria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83
Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Izcue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

ARANZABAL
KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea, 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 11 35



ARRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77
Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93



Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza • Bainuak
Gasa • Berogailuak**

Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta
aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren
salmenta eta zorrozketak • Larruzko gauzak
• Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1
Tel./Fax: 943 79 76 03

Margoak

APAIN
MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Jovi

10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Gida honetan azaldu nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 telefonora

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

KALEINKESTA/ Ze talde edo kirolariri emungo zeuskio aurten AUKEA sarixe?



MANUEL CRUZ
Jubilaue



ANDONI OZAETA
Langillie



MAIDER EGINO
Langillie



IÑAKI GURRUTXAGA
Langillie



PELLO URRETA
Langillie



MARI FLOR REBOTE
Langillie

Nik neuk Mondra futbol taldiari emungo neuskio. Egitten dabitzen denboraldixagaittik baiño, futbolzalie nazelako. Herriko kirol taldiei sarixek emutie idea ona pentsetan dot.

Aurten ez dittut herriko kirol taldiek askorik jarraitu, baiñe Mondra futbol taldiari emungo neuskio. Azkenaldixen sekulako bolada daroie, eta lan politie egitten dabitz.

Azken bost urtietan kanpuen ibilli naz, eta, gainera, kirola ez dot askorik jarraiketan. Hala eta be, ondo pentsetan jat herriko kirolarixei sariek emutie, merezi badaue, behintzet.

Nik neuk Mondra futbol taldiari emungo neuskio AUKEA sarixe, azkeneko partiduetan emaitza onak lortu dittuztelako. Herriko kirolarixei sarixek emutie oso ondo dago.

Idearik be ez dauket. Kanpuen egitten dot lan, eta aspaldixen ez dittut herriko kontuek jarraiketan. Sarixek ondo daguzela pentsetan dot, kirolarixek motibau egitten die-eta.

Geure semiek saskibaloian jokaketan dau, eta sarixe saskibalo taldiari emungo neuskiola esan biherko dot. Ondo dabitzen kirolarixei sarixek emutie idea ona dala uste dot.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK TXAKUR KAKEKIN GOGAITUTA Txakur dezente ikusten dira herriko kaleetan, gehienak euren jabeekin. Baina kasu batzuetan txakurrek kalean kaka egin eta jabeek ez dute hori jasotzen. Hori da irakurle batek salatu gura izan duena. Eta, adibide gisa, aste honetan Arbolapetan bertan aurkitu dugun altxorra. Ea, bada, halakorik aurkitzen ez dugun, halako bat zapaltzea ez da-eta oso atsegina.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 8

KIROLA / 12

KULTURA / 14

Ingurugiro Eskola berbagai

Maribi Visitación irakaslearekin izan gara, Ingurugiro Eskolaren gainean berba egiten.

Zaldibarko 2. fasea, hastear

Oraingo asteburuan, Zaldibarko areto futbol txapelketako bigarren fasea hasiko da.

'Putz' aldizkari berria kalean

Apokaliftin Kultur Elkarteak Putz aldizkariaren hamahirugarren alea kaleratu berri du.

ASTEKODATUA

180.206

LAGUNEK ERABILI DUTE HERRI AUTOBUSA 2001EAN

Arrasateko herri autobusa kudeatzen duen Leintz Garraioak enpresak aditzera eman duenez, 180.206 lagunek erabili dute 2001. urtean barrena hiriguneko muturrak lotzen dituen zerbitzua.

BESTEKEKESANA

“Duela bost urte sortu zen Topagunea Federazioa, prozesu bateratzaile baten ondorio gisa. Egun hiru lantoki desberdin ditugu: Arrasaten, Lasarten eta Abadiñon. Langile batekin hasi zen, baina jarduera garatzen joan den neurrian langile kopurua ere gehitu egin da eta egun hamar kide inguruk egiten dute lana Topagunean (...) Topagunearen helburuak bazkideen helburu berak dira. Horietaz gain, bi dira dituen zeregin nagusiak: euskara elkarteetan jarduera sustatzea eta elkarteetara berbitzua eskaintzea. Federazioa sendotzea da erronka nagusia. Azpiegitura eraikitzen ari gara. Zeregina, baloreak eta oinarritzko kontzeptuak batera landu, finantziabide ereduak arautu eta guztia antolatu”.

JOXE MARI MUXIKA
EUSKONEWS/02-03-01

HERRITARRENBERBAK/ Itziar Ezpeleta



Zesar bakoitzari berea

Martxoaren 8a dela eta, gaztetako ametsak etorri zaizkit burura. Francoren garaiak ziren, ez zegoen diru askorik, eta estudiantzeko orduan, gizonak zeukat lehentasuna. Zenbat mutil joan zen komentuetara edo seminarioetara sabela betetzeko eta ikasteko? Gaur egun pentsatuz gero, gurasok buru barik jokatu zutela esan dezakegu, baina gauzak bere testuinguruan ikusi behar dira. Orduan, neskak eta mutilak ikasketak bukatu ondoren enpresetan lanean hasten ziren, baina ezberdintasun nabarmen batekin: neskek ezkondu arte egiten genuen lan, gero *sus labores* deritzona egin behar izaten genuelako. Behin ametsetan hasiz gero, zergatik ez dena banatu. Nire aitaren hitzak gogoratzen ditut eta zenbat asto-lan egin zuen. Gerora, teknologiak lanak arintzen zituen heinean aukera gehiago zegoen emakumeentzat. Gure ametsa fabrikako eta

etxeko lanak banatzea zen. Gure matematikak zioen baten lana bik eginez gero, enpresetan ordu gutxiago egingo genuela, baina hemen penduluaren legea inposatu zen. Badakit gaur martxoaren 8a izanda gaiarekin lotutako beste artikulu batzuk agertu direla.

“Ordu gutxiago lan egin eta seme-alabekin egoteko denbora luzeagoa izan beharko genuke behingoz”

Nire kasuan, artikulu hainbat emakumeri eskaini nahi diet: lana etxean egiten dutenei, lan balio anitza -administrazioa, sukaldaritza, erizaintza...- betetzen dutenei. Baina garrantzitsuen, seme-alaben hezkuntza emakumearen eskuetan gelditzen zela. Gaurko gurasoek denbora daukate hezkuntza eman eta euren seme-alabekin egoteko, nahiz eta egunero zortzi ordu lan egin. Gehienek emakume bat dute etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko, gehienetan amona izaten dena. Noiz beteko da nire ametsa? Seme-alabekin egoteko eta bizi izateko denbora luzeagoa izan, lantegian ordu gutxiago lan eginez.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantza Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzaizain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 8**
Azkoaga. Iturriotz 33. 943 79 79 99
- ZAPATUA, 9**
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 . . . 943 79 22 26
- DOMEKA, 10**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- ASTELEHENA, 11**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74
- MARTITZENA, 12**
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 13**
Ruiz. Maala 31. 943 79 14 09
- EGUENA, 14**
Español. Araba etorb. 17. 943 79 18 65

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Igalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|--|---|
| San Joan parrokia | San Andres eliza |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza | Santa Teresa eliza |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia | Santa Marinako eliza |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | Jai egun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

MARTXOAREN 8KO EGITARAUA
Arrasateko Emakumeen Kontseiluak manifestazioa deitu du gaur, 19:00etan, Seber Altuben. Gero, luncha egongo da osoko bilkuren aretoan. Bihar, 10:00etatik aurrera, emakumeen azoka eta bertsolariak izango dira Seber Altuben. Domekan, 19:30ean, Amaia Udal Antzokian *Komeriaka* antzezlan izango da. Martitzenean, berriz, osoko bilkuren aretoan, 19:00etan, Pilar Yoldik *La violencia contra las mujeres en las guerras* izango du berbagai. Martxoaren 12an, Amaia Udal Antzokian, *El voto es secreto* filma ikusgai.

ELKARRIK, MAHAI-INGURUA
Martitzenean, hilaren 12an, 19:30ean, Elkarrik mahai-ingurua egingo du osoko bilkuren aretoan.

PIEDEHIERROREN ALDE
Bihar, zapatua, 19:00etan, manifestazioa izango da *Piedehierro entrega tortura arriskuan* lelopean. Musakolatik irtengo da, meneta ondotik, hain zuzen ere.

EKIN-EN BATZAR NAGUSIA
Eguenean, hilaren 14an, 18:30ean, Ekin Emakumeak elkarteak urteko batzar nagusia egingo du AEDn. Bazkide guztiei dei egin diete batzarrera.

AEDrenAGENDA

AED-REN LAN-POLTSA
AEDk lan-poltza zabaldu behar du. AEDn lan egin gura baduzu, bidali curriculum Pablo Uranga 6ra.

AED-REN AUZOLANDEGIAK
AEDk auzolandegiak antolatu gura ditu udan. Baionako AEK konpontzea dute helburu, eta hara joateko lantaldea osatu gura dute.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


1992ko otsailean, lau egunean egin zuen euria

1992ko otsaila hilabete lehor eta hotza izan zen, euria lau egunean bakarrik egin zuen-eta. Guztira 17,7 litro metro koadroko egin zuen hilabete osoan. Hotz-beroei dagokienez, gorabehera handiko hilabetea izan zen. Hamahiru egunean zero azpiko tenperaturak izan ziren.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru


"Mendibizkarra"



Gailurreria, gailurrak.

GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



ARRASATE PRESS

Irudian, Ekon-en aurrerapen singlea, 'Jabearen ahotsa'.

Albako dukesa Arrasaten izan zen

Zer eta Albako dukesa Arrasaten izan zela birritan orain dela urte batzuk. Haren senarraren -Sotomayorko dukearen- jabeztakoa zen Uribarriko Gorostiza baserria, eta hantxe izan ziren birritan. Istorio horren berri izango duzue zapatuan eta domekan, *Asteko Elkarrizketak* tartean. Bestalde, Arrasateko dorreak ere hizpide izan ditugu, eta horretarako bi lagunengana jo dugu, 20. edo 19. solairuetan zer moduz bizi diren jakiteko asmoz.

Ekon-en hirugarren diskoa kalean

Ekon talde arrasatearrak kalean du disko berria: *Nik salatzzen dut*. Disko berriaren aurkezpena egingo digute taldekideek datorren eguaztenean, 10:45ak inguruan. Gor diskoe-txearekin atera berri dute arrasatearrek diskoa, eta orain arteko hirugarrena da.

Hori ez da izango aurrerapen bakarria. Astelehenean, disko berriak aipagai izaten ditugu eta Zaragozako Amaral taldeak atera berri duen diskoa aurkeztuko dugu.

HAUGIROA!

MINIMOA
Zapatua, 2 **3°C**

MAXIMOA
Eguaztena, 27 **15°C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **24,1 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 27	15°C	12°C	2,7 l/m ²
Eguena, 28	12°C	7°C	0,9 l/m ²
Egubakoitza, 1	11°C	5°C	0,6 l/m ²
Zapatua, 2	12°C	3°C	2,1 l/m ²
Domeka, 3	12°C	5°C	0,2 l/m ²
Astelehena, 4	14°C	5°C	0,3 l/m ²
Martitzena, 5	9°C	7°C	17,3 l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena

ASTELEHENA
21:00 MIR

MARTITZENA
21:00 Hi bizi hadi

EGUAZTENA
21:00 Hitz eta pitz
22:00 Pottokatzen

EGUENA
21:00 Gailurretik/Mikelenea

EGUBAKOITZA
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak

ZAPATUA
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)
24:00 MIR (errep.)

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Mikelenea

ASTEABIHITZETAN

Beste lapurreta bat

Zoritxarrez, azkenaldian askotan errepikatu dugun albiste da hau: herrian lapurreta izan direla. Oraingoan, Daglas bideo dendari tokatu zaio. Eguen gauean, lapurrek harri batekin erakusleihoko kristala apurtu zuten. Gero, erakusleihokoan zeuden esku ordenagailu bat eta sagu batzuk eramane zituzten. Guztira 1.800 eurotan baloratutako materiala lapurtu zuten, 300 bat mila pezetan baloratutakoa, hain zuzen ere. Denda hartan azken zortzi urteotan hiru bider sartu dira lapurrak.

Gai guztiak onartuta

Ohiko osoko bilkuran lantzeko zituzten gai guztiak onartu zituen udalbatzarrak joan den egunean. Besteak beste, Juan Antonio Barriocanal, EAko zinegotzia Kutxako udal ordezkari izendatu zuten eta Toki Argi Erretiratu Elkarte-ko taberna ustiatzeko proposamena onartu zuten. Horrez gain, hiru mozio onartu zituzten: bik Eduardo Madinaren kontrako atentatua gaitzesten zuten, besteak beste; eta hirugarrenak Esther Cabezudoren kontra egindakoa ere gaitzesten zuten bestearekin batera. Azkenaldian moduan, bilkuraren amaiera aldera, zinegotziak eztabaida politikoa aritu ziren.

Amaia antzokia beteta

Zapatuan, Amaia antzokia bete-beteta egon zen. Batasunak omenaldia egin zion orain dela hamabost urte hil zen Txomin Iturberi, eta kale agerraldiaz gain, ekitaldi politikoa ere izan zen. Omenaldia jendetsua izan zen eta Amaia antzokian Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramailea eta Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea izan ziren hizlari. Biek ere orain dela hamabost urte Aljerian auto istripuan hil zen Txomin Iturberen gizatasuna azpimarratu zuten.



Elena Altuberi azken agurra

Joan den egunean, ESK-k, Zutik-ek, Emakumeen Asanbladak eta ehunka herritarrek azken agurra eman zioten Elena Altuberi. Ekitaldia arratsaldeko sei eta erdietan hasi zen Maalako Errabalean, eta ekitaldi hunkigarriaren ondoren, luntxa izan zuten Monte tabernan.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Lagun dezaket?

Gaur martxoaren 8a da, Emakume Langilearen Eguna. Zenbait gauza aldatu badira ere, oraindik familia askotan emakumeek daramate lan-zama handiena. Bai, badakit kasu guztiak ez direla berdinak eta gauzak aldatuz doazela, baina amak baino lan handiagoa egiten duenik ez duzu erraz aurkituko. Berdin da kanpoan lan egiten duten edo ez, kasu

gehienetan eurak dira etxeko antolamendua aurrera ateratzen arduratzen direnak.

Praktikan aurkakoa egiten dute, baina eurak errebelatu beharko lirateke, gizartearen funtzionamendurako eurak dira-eta ezinbesteko lana egiten dutenak. Ez dute soldatarik jasotzen eta, horrez gain, askotan zera esan ohi dugu euren gainean:

“Ez du lanik egiten, etxeko-andrea da”. Bestalde, ikaragarria da gizon askok dugun jarrera. Etxeko lanik egiten dugun galdetzen badigute, “Bai, han edo bestean lagun-tzen dut” erantzuteko gai gara.

Arrasateko pisu eta alokairuak izugarri garestiak badira ere –eta ez dago horren eskubiderik–, horra hor gurasoen etxetik hain kostata irteteko joera hedatu hori. Hor ere izango dute eragina aipatutako kontuek.

ASTEKOIRUDIA



AMAGOIA LASAGABASTER

188 MILA EUROKO SARIA ARRASATERA HAMABOSTEKOA ASMATUTA

Arrasate, edo arrasatear batzuk azkenaldian zorteko daude. Orain dela bi hilabete ONCEko sari eder bat tokatu zen herrian, eta oraingo astean herritar batek kiniela asmatu eta 188 mila euro irabazi ditu. Saridunak Erdiko Kaleko Ruiz de Alegria administrazioan bota zuen kiniela, eta hamabostekoa

asmatuta eskuratu ditu euro horiek guztiak (31 milioi pezeta). Zortedunak kiniela berean 900 pezetako apustua egin zuen, eta hamabosteko bat asmatu bazuen ere, besteetan ere ez zen txarto ibili, hamalauko bat eta hamahiruko hainbat asmatu zituen eta. Ez dadila azkena izan. (X.U.)

UARKAPE LEHIAKETA

Uarkape jatetxean bi lagunendako bi afari irabazi gura badituzu, bete ezazu txartel hau eta sar ezazu ARRASATE PRESSko sarreran egongo den kutxan (Otalora Lizentziaduna 31). Zozketa apirilaren 10ean (eguztana) egingo dute Arrasate Irratiko Igo Autobusera saioan.

Izena..... Abizenak.....
Helbidea..... Telefonoa.....

* Afariaren xehetasunak asteleheneretik egunera, Uarkape jatetxearen eskaintzaren arabera izango da. Ez da fotokopiarik onartuko.

UARKAPE JATETXEA



HEZKUNTZA/ Arrasate-Aretxabaleta Institutuak 25 urte bete ditu 2002ko ikasturtean

Arrasate-Aretxabaleta Institutua: 25 urte gazteen hezkuntzan murgilduta

UBANE MADERA

Arrasate-Aretxabaleta Institutuak 25 urte bete ditu aurten go ikasturtean. Ibilbide luzea, duda barik. Jakina, ezinezkoa da hori guztiori orri bakarrean kontatzea. Baina institutuko zuzendariarekin berbetan izan gara, Ramon Osinagarekin, eta hark egin digu laburpen xehea.


“Gaur egun, 604 ikasle eta 100 irakasle ditugu institutuan. Ikasleak hiru eraikinetan daude banatuta: Elkano kalekoan 162 ikasle daude eta DBHko lehenengo, bigarren eta hirugarren ikasturteak ematen dira; Musakolan, goian, 256 ikasle daude eta DBHko laugarren maila eta Batxilergoak ematen ditugu; eta Aretxabaletan Heziketa Zikloak ematen ditugu”. Gauzak horrela, Ramonek esan diguna laburbilduz, eskaintzari dagokionez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoa, Batxilergoak (Natur eta Osasun Zientziak, Teknologikoa eta Humanistikoa) eta Heziketa Zikloak ematen dituzte. Hau da, erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloak. Erdiko mailan Ibilgailuen Elektromekanika, Kontsumorako Ekipo Elektronikoak, Soldadura eta Galdaragintza, Mekanizataua eta Erizaintzako Zainketa Osagarriak ematen dituzte. Goi mailan, berriz, Fundizio eta Pulbimetalurgia Bidezko Produktzioa eta Metal Eraikuntzak.

Etorkizunari begira, eskaintza zabaldu gura dutela adierazi digu Ramonek: “Gaueko Batxilergoak emateko galdeketa egingo dugu, eta 18-20 lagun lortuz gero, eskolak abian ipiniko ditugu datorren urtean. Beste ziklo batzuk ipintzeko asmoarekin ere bagabiltza, baina aurrerago”.

HISTORIA

Baina gaur egungo egoerara iritsi aurretik, 25 urte pasatu dira. Atzera begira, askoz ere institutu txikiagoa ikusiko dugu, poliki-poliki handituz joan dena. “1977-78 ikasturtean jaio zen institutua. Francoren lege batek esaten zuen 10.000 biztanle baino gehiago zituzten herrietan institutu bat egon behar zela. Horrela, lehenengo Oñatin eta Bergaran sortu zituzten, eta urte batzuk geroago, Arrasaten. Hori lortzeko, orduko alkate Jose Antonio Altuna Txatillo eta Kultura eta Hezkuntza zinegotzi Guillermo Azpiazu ibili ziren lanean, bereziki”. 227 ikasle eta 12 irakasle izan zituen institutuak sorreran, guztiak Vicente Guinearen zuzendaritzapean. “Denetara zazpi talde izan ziren eta BBB zena ematen zuten”.

Institutuaren eraikinak eta lekuak ere aldatuz joan dira urteekin. Hasieran esan bezala, gaur



Sortu zenetik hona 25 urte pasatu dira, eta gaur egun 604 ikasle eta 100 irakasle ditu Arrasate-Aretxabaleta Institutuak.

“Taz bezala, aurten ere gaueko Batxilergoak emateko galdeketa egingo dugu”

egun, hiru eraikin ditu, baina hasiera bestelakoa izan zen: “Altamiran hasi ginen, gaur egun yoga ematen duten lekuan. Han

“227 ikasle eta 12 irakasle izan zituen sorreran, Vicente Guinearen zuzendaritzapean”

gela batzuk zeuden eta Ferixalekuan beste batzuk. Tartean, San Antolin Eskolan ere gela banaka batzuk izan dira eta poliki-poliki

“Hasiera bestelakoa izan zen. Altamiran hasi ginen, gaur egun yoga ematen duten lekuan”

gaur egungora pasatu gara”. Ramonek kontatu digunez, leku aldaketa egiteko Udalak kamioi txiki bat utzi zien; eta horrekin

eta automobil pribatuekin, makina bat buelta eman behar izan zuten batetik bestera. Handik aurrera, 25 urteotan izandako eraldaketaren barruan, lau gertaera nabarmendu ditu Ramonek: “93-94 ikasturtean, IEE sartu genuen; 95-96an, LOGSE; 96-97an, DBH; eta, azkenik, 98-99 ikasturtean, Aretxabaletako Lab-bide Heziketako Institutuarekin bat egin genuen”. Horrelaxe sortu zen gaur egun Arrasate-Aretxabaleta Institutua izenarekin ezagutzen duguna.

RAMON OSINAGA/INSTITUTUKO ZUZENDARIA

“Etorkizunerako prestakuntza eguneroko lanean datza”

Noiztik irakasle eta noiztik zuzendari?

1980. urtea ezkererako naiz irakasle eta bigarren urtea da institutuko zuzendari naizela. Horrez gain, Latina ere ematen dut ikasgai moduan.

Dagoeneko 25 urte bete ditu institutuak. Beste horrenbeste bai?

Bai. Erabat ziur nago, gainera. Hau zerbitzu publikoa da eta pentsatzen dut zerbitzua gizarteak berak mantendu behar duela.

Zelan ikusten duzu


institutua 25 urte barru?

Ziur aski, leku berean segituko du, honek irauten badu, jakina. Bestela, jendea dagokionez, mota askotako jendea izango dugu. Etorkinak leku guztietan daudenez, hemen ere izango dira.

Zer gustatzen zaizu gehien institututik?

Aniztasuna, bai irakasleen artean baita ikasleen artean ere.

Zein da ikasleengan eta irakasleengan igarritzen duzun aldaketa



handiena?

Ikasleen artean, lehenago hasten direla gauzak egiten. Adibidez, guk 18 urterekin genituen plan-

teamendu, erantzun eta bestelakoak 15-16 urterekin edukitzen hasten dira gaur egun.

Irakasleei dagokienez, berriz, lehen, eskolara etorri, eskola eman eta hortxe bukatzen zen guttia. Orain, gero eta gehiago zailtzen ari da gure lana. Adin desberdinetako ikasle gehiago ditugu; hortaz, aldaketa horiei erantzuna eman behar diegu; txipa aldatu egin behar da. Prestakuntza askoz ere handiagoa da.

Zerk kezkatzen ditu

gaur egungo gazteak?
Geroak, bereziki. Eta geroaren barruan, lana ez topatzeak eta etxebizitzaren prezioak.

Emaezu gomendio bat zure ikasleei...

Askok daude, baina hiru aukeratuko nituzke nik: lehen, etorkizunerako prestakuntza, bereziki eguneroko lanean oinarritzen dela; beste bat, ikusi eta ikasi. Eta hirugarrena, gauzak lehenengoan eta ahalik eta hoberekin egin behar dituztela. Horiek nire gomendioak.

ELKARRIZKETA

MARIBI VISITACIÓN/INGURUGIRO ESKOLAKO IRAKASLEA

“Orain, interes handiagoa dago eta ingurumena kontuan hartzen da”

UBANE MADERA

Naturaren gaineko jardunaldiak antolatu ditu Arrasateko Ingurugiro Eskolak. Aitzakia aprobetxatuz, Udala aldera jo dugu, eskola berezi hori gertutik eza gutzera. Maribi irakasle bergarrarekin izan gara berbetan:

Zer eskaintzen du Ingurugiro Eskolak, zelakoa da?


Hogeita hamazortzi umerendako lekua du eskolak: logezez eta ohiko gelez gain, laborategi txiki bat ere badu eta ekintzak egiteko gela handi bat. Hiru lagun gabiltza lanean ikasturtean: zuzendaria, Kandi Fernández arrasatearra, eta irakasle bi, Marijose Azurmendi Ibarakoa eta ni neu.

Bereziki, ikastetxeei eskaintzen diegu zerbitzua, EAEko ikastetxeei. Gehienetan Gipuzkoa aldetik etortzen dira (Arrasate, Aizarna, Urretxu...), baina Arabatik eta Bizkaitik ere etorri ohi dira. Ingurumenarekin lotutako programak eskaintzen dizkiegu, adinaren arabera. Lehenengo Hezkuntzako ziklo guztietako umeendako eta DBHko lehenengo zikloko ikasleendako programak dira. Egun bakarretako edo gehiagorako etor daitezke. Eta, jeneralean, goizean ibilaldi bat egiten dugu eta arratsaldean eskola barruan tailerrak egiten ditugu (ogia egin...).

Zein helburu du eskolak?

Ingurumena ezagutzera, ingurumenaren arazoaren gainean sentiberatasuna piztea eta jarrerak aldatzea. Azken batean, ingurumenaren gaineko hezkuntza zabaltzea eta praktikan jartzea.

Horren beharra dago?



UBANE

Nik baietz uste dut. Irakasleek ere eskertu egiten dute; eskoletan egiten dute zerbait. Baina hemen horretarako prest gaude, baliabide gehiago ditugu. Eta, gainera, ikasleak ere motibazio handiagoarekin eta lanerako gogo handiagoarekin etortzen dira.

Igartzen da hezkuntza hori?

Bai. Orain, eskoletan bertan ere proiektu dezente egiten dituz-

te, interes handiagoa dago eta ingurumena kontuan hartzen da.

Eskolaz gain, ekimen gehiago ere antolatzen dituzue...

Bai. Gaur, Zuhaitz Eguna da eta datorren astean erakusketa bat eta bi hitzaldi izango dira. Horrez gain, azken zortzi urteotan zaborraren gaia lantzen ibili gara Arrasateko ikastetxeekin.

Uste baino bidaiari gehiago izan ditu autobus urbanoak

UBANE MADERA

Iaz, 2001ean, espero baino erabiltzaile gehiago izan zituen herri autobusak. Hain justu, %17 gairitu ditu aurreikuspen baikorrenak. Guztira 180.206 bidaiarik erabili dute autobus urbanoak.

Halaxe jakinarazi du Leintz Garraioak enpresak, autobus urbanoaren kudeatzaileak, urtero egiten duen txostenean. Eman-dako datuen arabera, 1 Lineak izan ditu bidaiari gehien: 89.820, hain justu. Baina 2 Linea ere oso gertu ibili da, 87.196 bidaiari izan baititu. Abendua izan da bidaiari gehien ibili den hilabetea: guztira 16.711 bidaiari, 727 eguneko. Eta asteko egunei begiratuz gero, egubakoitzetan ibili ei da jende gehien urbanoan: 689 bidaiari, hain zuzen ere. Edozelan ere, egunean batez beste 599 lagunek erabili dute autobus urbanoa.

Orduei dagokienez, 1 Lineak 11:00ak eta 12:00ak bitartean eta 18:00ak eta 19:00ak bitartean izan du jende gehien; eta 18:00etatik 19:00etara bitartean ibili da jende gehien 2 Linean.

AUTOBUS-BONUA, GORA

Autobus-bonuaren erabilera ere igo egin dela jakinarazi digu

Leintz Garraioak enpresak. Apurka-apurka baina etengabekoa izan ei da igoera. Are gehiago, uste dute euroaren sarrerak lagundu egin duela igoera horretan. 2001eko lehenengo lauhilabetean %29 igo zen autobus-bonuaren erabilera eta bigarren lauhilabetean, %37. Hori bai, gaineratu dute uste baino gutxiago erabili dituztela diruz lagundutako bonuak. Apirilean hasi ziren horrelako laguntzekin, eta 6.500 erabiltzaile izan ditu, 18.000-30.000 erabiltzaile espero zituztela.

EROSKI ETA SAN FRANTZISKO XABIER

Bestalde, urbanoa erabiltzen duen jende gehienak zerbitzua Eroskira joateko erabiltzen duela dio urbanoaren gaineko txostenak. Datuen arabera, bidaiari guztien %24'8 (43.832 bidaiari) Eroskira joaten da. Berriz, gehien erabiltzen den gurekoa San Frantzisko Xabierkoa da.

Datu horiek guztiak aztertu eta gero, Leintz Garraioek atera duen ondorioa da argi dagoela Arrasateko autobus urbanoaren beharra zuela. Eta gaineratu dute, oro har, lau helburu lortu gura dituztela autobus urbanoarekin: mugikortasuna ahalbidetzea, zirkulazio eta kutsadura mailak txikitzea eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea.

Gaueko autobus zerbitzua handitu egingo du Foru Aldundiak

Iaz, urriaren 6an, gaueko autobus zerbitzua ipini zuen Foru Aldundiak Gipuzkoan. Helburua zen “gazteei mugikortasuna murriztu barik ibilgailu pribatua gutxiago erabiltzeko” zerbitzua eskaintzea. Jakina, Arrasaterako eta ibarretarako ere ipini zituen autobusak. Eta gainerakoetan moduan, bost hilabeteko froga epea ipini zuen aldundiak.

Froga epe hori bukatuta, ikusi dute espero baino jende gehiagok erabiltzen dituela gaueko autobusak, eta, gainera, herri gaueko eskatu dutela zerbitzu

hori ipintzea. Orain arte, 12 autobus ibili dira gauez lanean.

ALDAKETAK

Hori dela eta, Foru Aldundiak erabaki du datorren martxoaren 9tik aurrera, hiru autobus gehiago ipiniko dituela gauez. Hortaz, 15 ibiliko dira. Hain justu, beste aldaketa batzuen artean, Zumarraga-Oñati-Arrasate ibilbidea egiten zuen autobusa aldatu eta Zumarraga-Beasain zatirako eskainiko dute. Izan ere, Urretxuko alkateak Foru Aldundiari adierazi dionez, inguru hartako

gazteak, orain, Beasain aldera gehiago jotzen ei dute Legazpira, Oñatira edo Arrasatera baino.

Hortaz, datorren zapatutik aurrera, Arrasatek honako zerbitzua izango du:

Eibar-Eskoriatza eta Beasain-Zumarraga-Legazpi-Oñati-Arrasate. Orduetgia, berriz, honakoa: **Eibar-Eskoriatza:**

Eibar: 00:00, 01:30, 03:00, 04:30, 06:00; **Eskoriatza:** 00:00, 01:30, 03:00, 04:30, 06:00.

Zumarraga-Arrasate: 02:30, 06:00; **Arrasate-Zumarraga:** 00:00, 03:15.



Beatifikazioaren urtemuga

Bihar, zapatua, Clara Ezkurra arrasatearra beatifikatu zuteneko lehenengo urteurrena ospatuko dute. Ospakizuna beataren sorlekuan egingo dute, Uribarri auzoan. Arratsaldeko zazpitan, Clara Ezkurraren aldeko meza esango dute Itxaropenaren Andre Mari elizan. Hango parrokoak, Mikel Aranburuk, eta Jose Luis Ezkurra apaizak esango dute meza.

Horrez gain, Valentin Arana Ezkurra margolariak Clara Ezkurraren margolan bat egin du. Eta hori ere Itxaropenaren Andre Mari elizan izango da ikusgai. /UBANE MADERA

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospakizunez lepo dator

UBANE MADERA

Gaur, egubakoitza, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna izanda, Mondragoen makina bat ekitaldi egingo dute. Esaterako, gaur, manifestazioa dago deituta Seber Altuben. Eta, bestalde, tratu txarrak berbagai izango dira.

Herenegun hasi ziren Emakumearen Eguna ospatzeko ekitaldiak. Izan ere, eguaztenean zein eguenean, emakumeek zuzendutako filmak eman dituzte. Gaur, berriz, manifestazioa izango da 19:00etan Seber Altuben, eta gero, 20:00etan, luncha Udaleko areto nagusian.

Hori guztia Udaleko Emakume Sailak eta herriko Emakume Kontseiluak lankidetzan antolatutako egitarauaren barruan dago. Egitarau hori apirilaren 9a artekoa izango da. Horrela, bihar, zapatua, Emakumeon Azoka izango da Seber Altuben 10:00etan; eta 13:00etan, berriz, bertsolariak arituko dira. Domekan, *Komeriaka* antzezlanaren taularatuko dute Amaia Udal Antzokian.

Datorren astean, martitzenean, emakumeen kontra gerretan izaten den indarkeriaren gaineko hitzaldia egingo du Pilar Yol-



ARTXIBOA

Bihar, Emakumeon Azoka izango da Seber Altuben eta gero, bertsolariak.

dik areto nagusian. Eta eguenean, *El voto es secreto* filma eskainiko da 21:30ean Amaia Udal Antzokian.

Martxoaren 21ean segituko dute ekitaldiek. 15:30ean, Virginia Imazek antzezlanaren eskainiko du Amaia Udal Antzokian eta, gero, *Intimidación* filma izango da 21:30ean Udaleko areto nagusian.

Bukatzeke, apirilaren 9an, Alizia Stürtze historialariak *Euskal Herriko Sorginak* hitzaldia

egingo du 19:00etan Udaleko areto nagusian.

AL-ANDALUS

Bestalde, Al-Andalus elkarteak ere antolatu ditu Emakumearen Eguna ospatzeko ekimenak. Hain justu, gaur, 20:00etan, tratu txarren gaineko hitzaldia egingo du Zuzenbidean lizentziadun Maria Luisa Garcia hizlariak. Eta bihar, zapatua, bazkaria egingo dute, arratsaldeko hiruretan.

Kolektorearen lanak direla-eta, aldaketak izango dira Obenerrekan

UBANE MADERA

Herriko ur-zikinak batzeko kolektore lanak Obenerreka auzoan hasiko dira datorren martxoaren 11n. Lanok zuzenean eragingo dute zirkulazioan eta zaborra batzeko zerbitzuan. Ondorioz, batak zein besteak aldaketak izango dituzte.

Udalak jakinarazi du lan guztiak zatika egingo dituztela, ahalik eta eragozpen gutxien eragiteko. Zirkulazioari dagokionez, lehenengo zatian, martxoaren

18ra arte, ez da ezelako aldaketarik izango. Eta, berriz, martxoaren 18tik aurrera, norabide aldaketak, aparkaleku murrizketak eta bestelakoak egon daitezkeela adierazi du Udalak. Hain justu, ziurtatu du noizean behin lokal eta garaje batzuetarako sARBIDEAK etenda egongo direla. Aldaketa guztiak dagokionean iragarriko ditu Udalak.

ZABOR ZERBITZUA

Zabor zerbitzuari dagokionez, berriz, lanen lehenengo zatian,

oraingo leku beretan jasoko dute zaborra. Baina, lanak Obenerrekako zubira eta Institutuko sarre-rara heltzen direnean (maiatza aldean izango da hori), edukiontzia ipiniko dituzte leku jakin batzuetan. Maiatzean bertan iragarriko dute non izango diren aipatutako edukiontzia.

Oro har, Musakola-Santa Teresa-Obenerreka auzoetan egingo ari dira kolektorearen lanak. Arrasateko Udalak jakinarazi digunez, abuzturako lan guztiak bukatzea aurrez ikusi dute.

Udalaren aurrekontua emendakinak aztertu eta gero landuko da

UBANE MADERA

Baliteke aurtengo aurrekontua lantzeko ezohiko bilkura datorren astean egitea Udalean. Izan ere, atzo, eguena, aurrekontuari aurkeztutako emendakinak aztertu zituen Udaleko Ogasun batzordeak. Emendakinak onartuz gero, egin beharreko aldaketak ere egin beharko dituzte aurrekontuetan.

Eta horren ondoren, osoko bilkuran aurkeztu beharko dute aurrekontua, udalbatzarrak behin betiko onartzeko.

IAZKOA BAINO TXIKIAGOIA

Arrasateko Udalak 27.043.000 euroko aurrekontu orokorra du 2002. urterako, hau da, 4.499'6 milioi pezeta. Iazkoa baino ehuneko 4'5 txikiagoa da aurtengo

aurrekontua. Edozelan ere, AUKEAren eta Iturbide egoitzaren aurrekontuak handiagoak izango dira. Betiere, eta lehen esan bezala, hori guztia horrela izango da Ogasun batzordeak egin beharreko batzarrean gertatzen denaren arabera. Eta albiste hau idaztean batzarra egin barik zegoenez, ez dugu jakiterik zein izan den horren emaitza.

LABUR

Josu Uribetxeberriak jipoia jasan duela salatu dute Etxerat eta Askatasuna taldeek

Puerto 1 kartzelan dagoen Josu Uribetxeberria preso arrasatearra jipoitu egin dutela salatu dute Etxerat eta Askatasuna taldeek. Emandako datuen arabera, otsailaren 23an gertatu zen. Modu luko funtzionarioek biluztera behartu gura izan zuten, baina presoak ezetz esan zuen. Ondorioz, isolamendu gelara eraman zuten eta han, indarrez biluzten hasi ziren. Lurrera bota zuten eta lurreran zegoela ostikadak eman zizkioten bizkarrean, baita markatu utzi ere. Aurpegian lau kolpe gogor eman ei zizkioten.

Elkarrik antolatutako mahai-ingurua datorren martxoaren 12an izango da

Bake Konferentziari buruz Elkarri egiten ari den mahai-ingurua datorren martxoaren 12an izango da Arrasaten. Alderdi politiko-en ordezkariak hartuko dute parte. Hain justu, gaur egungo egoera eta egoera horri zelanbaiteko konponbidea zelan eman aztertuko dute. Horrela, bada, Eusko Alkartasunetik Alberto Uzunmuntzaga etorriko da; Euzko Alderdi Jeltzaletik Luke Urribetxeberria; Ezker Batutik Martin Calvo; alderdi sozialistatik Ernesto Gasco. Batasunetik oraindik ez dute zehaztu nor joango den. Mahai-ingurua Udaleko osoko bilkuren aretoan izango da.

Batxilergoko eta unibertsitateko ikasleek greba egin zuten eguaztenean eta eguenean

Unibertsitate Lege berriaren kontra protesta egiteko greba egin zuten Batxilergoko eta unibertsitateko ikasleek. Batetik, eguaztenean, Ikasle Abertzaleak taldeak egindako deialdiarekin egin zuten bat. Eta, eguenean, berriz, ikasleen sindikatuak egindako deialdiarekin.

Oro har, ikasleak ez datoz bat Estatuko gobernuak azkenaldian iragarri dituen aldaketa posibleekin: errebalida, kalitatearen legea... Horren harira, eguaztenean, manifestazioa egin zuten Arrasaten zenbait ikastetxeak eta unibertsitateko ikasleek.



Eguazten goiz nahaspilatsua

Eguazten goizean, kaosa izan zen erdialdean. Goizeko bederatzietan, SOS Deietan bonba abisua jaso zuten. Hain justu, 10:00etan, bonba batek BBVA banketxean lehertuko zen mehatxua jaso zuten. Berehala Ertzaintzak eta Udaltzaingoak ingurua hustu eta hesitu egin zuten. Eta 10:00etan eztaba egin zuten beste ordubetez. Izan ere, esandako guztia pasatzen ari zela, gas usain handia zabaldu zen 200 metroan. Ondorioz, suhiltzaileak eta Natur Gaseko teknikariak ere agertu ziren. Zorionez, ez zen ezer larririk gertatu.



ARRASATEARRAK, SAGARDETEGIAK GIROTZEN

Argi dago sagardotegien denboraldia hasi dela, eta arrasatearrok horrelakoetan ez dugu kalerik egiten. Joan den asteburuan, guk dakigula, bi koadrila hauek izan ziren aurtengo sagardo berria dastatzen. Martxoaren 1ean, joan den egubakoitzean,

Ekide enpresako lagunak afaria izan zuten Petritegin. Zapatuan, berriz, AEK-ko lagunak Hernaniko beste sagardotegi baten izan ziren. Esan beharrik ez dago giro aparta izan zutela, eta esan zigutenez, aurtengo sagardoa ere edateko modukoa dago. Baina neurrian!

HERRIAN, POLIKIAGO

Egia esatearren, lastertasuna murrizteko bandek ez dute grazia handirik egiten, eta oraingo astean gehiago jarri dituzte. Hala ere, herri barruan ibili behar den bezala ibiltzen ez dakigunez, ez dago beste erremediorik. Neurri horrekin, herri barruan polikiago joateaz gain, oinezkoen pasabideak ere gehiago errespetatzen ditugu. Pentsatzen hasiz gero, enpresaren batek negozio ederra egin du.



TXAPELKETA BEREZIA

Joan den egubakoitzean, Seber Altubeko ludotekan Lauko Marra Txapelketa jokatu zen. Guztira hogeita bost gazte ibili ziren txapelketan, eta batzuek benetako abilezia erakutsi zuten. Bi irabazle izan ziren, baina argazkian irteteko txapelketan parte hartu zuten gehienak animatu ziren. Irabazleek Txarrijolas bana irabazi zuten.



JULEN IRIONDO

Muruak gol bi egin zituen lehenengo zatian, baina ez zuen zortirik izan bigarren zatian jaurti zuen penaltian.

FUTBOLA

Liderrari irabazi eta gero, Mondra Oriora joango da asteburuan

Mondrak sekulako partidua jokatu zuen zapatuan Amaikak Bat taldearen kontra

XABIER URZELAI

Zapatuan Atxabalpera joan zirenek arratsalde pasa bikaina egin zuten, Mondrak horretarako aukera eskaini zuen-eta. Liderra ezer gutxi erakutsita bueltatu zen Debara. Edozelan ere, Arrasateri bide luzea geratzen zaio egiteko.

Mondrak lehenengo zatiko hasierako minutuetan oso ondo jokatu zuen, eta kontraeraso bi aprobetxatuz, Muruak gol bi egin zituen. Gol errenta horrekin eta Amaikak Bat taldea futbol zelaiari

erakusten ari zenarekin, lasai egoteko arrazoiak zeuden, baina lehen zatia amaitzeaz zegoela, kanpotarrek bi eta batekoa egin zuten.

Bigarren zatian bazirudien gauzak okertu egingo zirela, baina Mondrak ez zuen behera egin eta etxeko aurrelariak hainbat gol aukera garbi izan zituzten. Muruak penalti bat ere izan zuen gola egiteko, baina ez zuen asmatu. Hiru eta batekoa denbora kontua baino ez zen. Eta gol hori Muxi-k egin zuen bakarkako jokaldi bat bikain amaituta. Ikusleek lasaitu ederra hartu zuen eta

Muxi-k txalo zaparrada beroa eman zuen.

PAUSO BAT BESTERIK EZ DA EMAN

Eta hurrengo pausoa Orion eman beharko dute Arrasateko jokalariek. Etxekoek zapatuko garaipenarekin goiko postuetako taldeak hurrago dituzte, baina oraindik lan handia dago egiteko. Gauzak horrela, Mondrak Orioren kontra jokatu du asteburuan. Mondra bosgarren da sailkapenean eta Segura eta Amaikak Bat taldeak sei puntura daude. Sei puntuko alde eta hogeita zazpi puntu jokoan.

Kenci Arrasatek ezin lehen itzulua garaipenarekin amaitu

XABIER URZELAI

Arrasateko saskibaloitza taldeak ezin izan zuen lehenengo fasea garaipenarekin amaitu. Iruñean jokatuako partiduan Erro Eugi taldea 101-91 nagusitu zen. Oraingo aste bukaeran, Askartza taldea izango da aurkari Iturripen.

Oso gaitza ematen zuen Kenci Arrasate Iruñeko Azpigalaña kiroldegian jokatu behar zuen partidutik puntuekin bueltatzea. Arrasatekoek argi zeukaten talde nafarra aurkari gogorra izango zela; izan ere, aurreko urtean haien kontra jokatuako bi partiduetan etxekoek ezin izan zuten ezer egin.

Aurreikuspenek ez zuten kale-rik egin, baina partidua nahiko parekatua izan zen. Hasierako minutuetan erritmo geldoa izan zen nagusi. Arrasatearrak -barneko jokoari esker- eta nafarrak

-jaurtiketetan erakutsitako abileziari esker- 28-21 iritsi ziren lehen laurdenaren amaierara. Bigarren laurdenean Kenci erakzioratu egin zuen, eta 48-60 aurreratu zen.

Handik aurrera, Kenci Arrasate taldeak nekea eta min hartuta zeuden jokalarien falta gure baino gehiago sumatu zituen, eta ahalegindu ziren arren, iruñidarrak ez zuten barkatu.

ZAPATUAN, BIZKAITARREN BISITA

Oraingo asteburuan, Kenci Arrasate etxean -Iturripen- jokatu du. Iker Zubiriaren mutilek Askartzako taldearen bisita izango dute.

Igoera faseko lehenengo itzulian Arrasateko saskibaloitza taldeak bi partidua bakarrik irabazi ditu, eta zapatuan, bigarren itzulian hasiko da. Etxean jokatu beharreko partidua irabaztea dute helburu, eta oraingo asteburuan beste aukera bat izango dute.

FOTOKIROLA



Arrasateko zikloturistak bidean dira

Domekan, denboraldiko lehenengo ibilaldia egin zuten Arrasateko Debagoiena taldeko zikloturistek. Denera hamabi lagun batu ziren; izan ere, eguraldiaren iragarpenek bati baino gehiagori bizikletan ibiltzeko gogoak kendu zioten. Lehenengo irteerak labur samarrak izango dira, eta, denboraldiak aurrera egin ahala, itzuliak luzeagoak eta gogorragoak izango dira. Oraingo domekan ere, hainbat zikloturista elkartuko dira. Arrasatek Mendarora joan-etorria egingo dute. (XABIER URZELAI)

Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak mendiko ikastaroa antolatu du

XABIER URZELAI

Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak mendiko eski ikastaroa antolatu du Cauterets-en (Frantzia) hileren 16tik 19ra. Hainbat teknika ikasiko dituzte: eskiekin aldapak igotzeko eta jaisteko teknikak, balaztatze teknika eta aingu-

raketak (anklajeak) eta korapiloak egiteko teknikak.

Eski ikastaroak lau egun iraungo du. Lehenengo egunean, eskigunean eskiatuko dute eta igogailuak aprobetxatuz aterpe batera abiatuko dira. Bigarren egunean, mendi artean eski zeharkaldia egingo dute eta beste ater-

pe batera joango dira. Hirugarrenean, mendi tontor batera igo, eta aterpera jaitsiko dira. Azken egunean, laugarrenean, beheko bailarara jaitsiko dira. Ikastaroan gehienez hamabost lagunek hartu ahal izango dute parte, eta derrigorrezkoa izango da gutxienezko maila izatea.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

KIROLA ZEURE ESKURA

ELKARRIZKETA

ALBERTO GARAI, OIHANA URIBETXEBARRIA, MARIA SAGASTI/ KIROL MEDIKUAK

"Kirola egiten denean, komeni da osasun azterketa egitea"

XABIER URZELAI

A tzo, eguena, Arrasateko Musakolako kiroldegiko Medikuntza Zerbitzu berria inauguratu zuten. Kiroldegiko berritze lanekin batera, Kirol Medikuntzako Zerbitzua ere berri egin dute, eta Alberto, Maria eta Oihana izango dira hantxe lanean.

Zer eskainiko du zerbitzu horrek?

Alberto: Alde batetik, Kirol Medikuntza Zerbitzu hori prebentzio zerbitzu bat da. Azterketa medikoen bitartez, gaixotasunen bat badagoen ikertu, eta gaixotasunen bat egongo balitz, kirolaren bitartez gaixotasunari nola aurre egin diezaioketun aztertzen dugu.

Horrez gain, lesioak nola ekidin daitezkeen azaltzen dugu, eta horiek tratatu ere egiten ditugu. Bestalde, orain dela bi urtetik hona homeopatarekin lan egin dugu, eta oso emaitza positiboak izan ditugu. Azkenik, goi mailako kirolarietara eta herriko kirol taldeekin ere lan egiten dugu.

Zerbitzu hori nori dago zuzendua?


Oihana: Geure helburuetako bat zerbitzu honekin herritarrenganaino iristea da. Herrian kirola egiten duen jende asko dago, eta kirola egiteko material egokia erosten diru mordera gastatzen dute. Kirola egiteko zure gorputza ezagutzea oso garrantzitsua da, eta zure gorputzaren egoera zein den jakiteko analisi hauek egitea komeni da.

Zein materialekin egiten duzue lan?

Maria: Azken baten, gorputza kirola egiten dagoen bitartean aztertzen dugu. Horretarako, era askotako aparailuak daukagu. Korrika egiteko zintan edo bizikletaren gainean bihotza aztertzen dugu. Esfortzua egiten dagoenean, lasai dagoenean, zenbat denbora behar duen erreku-peratzeko, eta abar. Horrez gain, gorputzaren komposizioa zein den aztertzen dugu: zenbat koipe, muskuluak, hezurrek pisatzen dutena, indarra egiteko gaitasuna... Material egokia daukagu, eta behar den moduko azterketa egiten dugu.

Zeintzuk dira zuen helburu nagusiak?

Oihana: Lehen esan bezala, gure helburuetako bat zerbitzu gure herrian zabaltzea da. Jendeak jakin dezala azterketa horiek eginda, gaixotasun asko prebentziaz gain, gorputza hobeto ezagutuko duela. Zein kirol egitea komeni zaion esango zaiola, eta arazoren bat baldin badauka, kirolaren bitartez arazo hori kon-



XABIER URZELAI

"Gure helburuetako bat kirol kultura bultzatzea da. Aisialdian jendeak kirola egin dezala"

pontzen saiatuko garela. Horrez gain, gure beste helburuetako bat kirol kultura bultzatzea da. Jendeak jakin dezala kirola eginez osasuna hobetzen dela, eta aisialdia kirola egiten aprobetxatzea oso gomendagarria dela.

Kirol Medikuntzan adituak izanda, ze iritzi daukazue dopinaren gainean?

Alberto: Azken baten, oreka bat izan behar da. Kirolariak gero eta gehiago sufritzen badu, orduan eta hobeto ikuslearendako, baina horrek ordain bat dauka. Kirol probetan ondo erreku-peratzea oso garrantzitsua izaten da, eta askotan probak oso gogorak izaten direnez, gorputzak ez dauka astirik behar den bezala erreku-peratzeko. Kirolarietara

"Kirolariak asko sufritzen badu, ikuslearendako hobeto. Horrek ondorioak dakartza"

horretarako hainbat substantzia hartzen dituzte, eta guztiak ez dira legezkoak. Edozelan ere, dopin kasuak gutxitzeko kirol frogak ere gehiago neurtu behar dira.

Dopina berbagai da azkenaldian, baina argi dago aspaldiko kontua dela.

Maria: Bai, kasu asko orain ikusten ari gara, baina aspaldiko kontua da. Guk gehienbat herriko talde eta kirolarietara egiten dugu lan, eta zorionez horrelakorik ez da izaten hemen. Hemengo kirolarietara ondo pasatzeko eta osasuna izateko egiten dute kirola. Maila profesionalean hainbat kirol proba gogorregiak izaten dira, eta oreka bilatu beharko da, bestela kasu gehiago agertuko dira.

ATLETISMOA

Maria Jose Gil atleta arrasatearrak urrea eskuratu zuen Espainiako Txapelketan

Joan den asteburuan, Atletismoko Espainiako Txapelketa jokatu zen Anoetan, eta protagonistetako bat atleta arrasatear bat izan zen. Maria José Gil mondragoetarra beterranoen mailako 1.500 metroetako proban izan zen, eta urrezko domina eskuratu zuen.

Lasterketa horretan 60 urtetik gorako atletek hartu zuten esku, eta arrasatearra izan zen azkarrena. Lehena iristean gain, Maria Josek Espainiako errekor berria ezarri zuen (5:55 minutu). Zapatuan egindakoa gutxi balitz, hurrengo egunean, domekan, Maria Josek Donostiako Lilatonean ere hartu zuen parte. Argi dago oraindik ere sekulako sasoiari dagoela emakume hau.

Bestalde, domekan Amurrion jokatu zen eskola mailako Euskadiko Krosean Markel Blanco atleta gaztea laugarrena izan zen 4.100 metroetako proban. Gipuzkoako lasterkariak nagusitu ziren proban. Hamabi urteko arrasatearrak maila polita erakutsi zuen, eta berriro ere erakutsi zuen etorkizun polita izan dezakeela.

TXIRRINDULARITZA

Bihar, zapatua, Dorletako Ama Txirrindulari Taldearen aurkezpena egingo da

Dorletako Ama Txirrindulari Taldeak bihar arratsaldean egingo du denboraldi berriko taldearen aurkezpena. Dorletako Ama Txirrindulari Taldeak aurtengo denboraldian infantil mailako talde bat, kadete mailako bi talde eta gazte mailako beste bi talde izango ditu, eta aurkezpen horretan ziklista guztiak ezagutzeko aukera izateaz gain, beste urte batez, txirrindulari taldeari lagunduko dioten babesleak ere hantxe izango dira.

Ekitaldia goizean hasiko da. Goizeko hamar eta erdietan, Dorletako Ama Txirrindulari Taldea osatzen duten kide guztiak lore eskaintza egingo diote Ama Birjinari. Gero, goizeko hamaika eta erdiak aldera, Apotzagako elkartean, aurtengo Dorletako Ama txirrindulari Taldearen aurkezpen ofiziala egingo da, eta horrekin batera ziklismoko taldea babestuko duten etxe eta enpresak ere aditzera emango dira. Eta gero, luntxa izango da.

FOTOKIROLA



Formigal-era eskiatzera Besaide MEREkin

San Joseko zubian eskiatzera joan nahi duenarendako, Besaide MEK eskaintza polita egin du. 230 euroren truke, Formigal-era eskiatzera joateko aukera izango da. Irteera martxoaren 16an izango da, goizeko bostetan, eta martxoaren 19an bueltatuko dira. Prezio horren barne daude Formigal-era joan-etorria egiteko autobusa, lau egunerako *forfait*-a eta hotela mantenu erdian. Izena emateko, Besaideko egoitzara jo lehenbailehen. Informazio gehiago 943 77 30 66 telefonoan. /X.U.

AGR Arrasate eskubaloi taldea, igoera fasea jokatzeko aukera barik

XABIER URZELAI

Joan den asteburua ez da batere ona izan Arrasateko senior mailako eskubaloi taldeendako. AGR Arrasatek igoera fasea jokatzeko aukera gutxi zituen, eta orain aukera barik geratu da, legazpiarren kontra galdu egin zuten-eta. Bigarren taldeak gutxiatik ez zion irabazi Donibaneri.

Joan den asteburua ez da batere ona izan Arrasateko eskubaloia- rendako, senior mailako talde biek galdu egin zuten-eta. AGR Arrasatek ezin izango du igoera fasea jokatu. Bigarren taldeak, bestalde, denboraldiko partidu onenetako bat jokatu zuen, baina ezin izan zuen irabazi.

IGOERA FASEA JOKATZERIK EZ

Gutxi batzuek zeukaten ametsa zuten senior mailako lehen taldeak igoera fasea jokatu ahal izatea, eta amets hori joan den asteburuan ezerezean geratu zen. Alde batetik, Euskadiko Federazioaren zigorreratik, eta bestetik, partidu gehienak irabazi behar zirelako, helburu hori betetzea ia ezinezkoa zen. AGR Arrasate taldeak Legazpiko taldearen kontra jokatu zuen, liderraren kontra,



JULEN IRIONDO

Arrasateko eta Donibaneko jokalariek domekan Musakolan jokatzeko partiduan.

hain zuzen, eta legazpiarrak 27-24 nagusitu ziren. Partidu parekatua izan zen. Etxeko taldeak azken minutura arte borrokatu zuten, baina azken momentuan arrasatearrek ez zuten zortea aldeko izan. Oraingo asteburuan, Bergara izango da aurkaria.

BIGARREN TALDEA, GERO ETA HOBETO

Arrasateko bigarren taldeak -Herrerok gidatzen duen taldeak- kontuan hartzeko aurkaria dela

erakutsi zuen domekan Musakolan. Arrasatearrek Donibaneren kontra neurtu zituzten indarrak, eta lehenengo zatian etxekoak izan ziren nagusi. Bigarren zatiko lehenengo hamar minutuak benetan txarrak izan ziren, eta etxekoek orduan galdu zuten partidua. Kanpotarrek aurre hartu zuten markagailuan eta Arrasatekoek ezin izan zuten erreakzionatu. Horrela, norgehiagokaren emaitza 23-25 izan zen.

FOTOKIROLA



Arrasateko errugbi taldea, sailkapeneko goiko postuei eutsi guran

Arrasateko errugbi taldeak ez du gura goiko postuetatik aldentzerik, eta zapatuan argi erakutsi zuen hori. Arrasatearrek Irun taldearen bisita izan zuten, eta joaneko partiduan izan ziren gertaerakin, argi zegoen partidu ikusgarria bezain gogorra izango zela.

Etxeko taldeak lehenengo zati ona egin zuen, baina bigarrean gauzak nahastu egin ziren, eta epailearen hainbat erabaki zalantzarrik urduri jarri zituen etxeko jokalariek. Kanpotarrek ondo aprobetxatu zuten etxekoen beroaldia, eta aldea murriztu egin zuten. Hori gutxi balitz, etxeko taldeko jokalarik bi egotzi egin zituen epaileak, hari protesta egiteagatik. Edozelan ere, mondragoetarrek -jokalarik bi gutxiagorekin ere- partidua aurrera ateratzea lortu zuten: 31-22. /X.U

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Betrayer - Goma2	5-5
Estu Ta Larri - Txotx	6-4
Fraguel Gol - Maldifa's	12-5
Saukelu Scream - Makanaki	5-4
Aurrera Bolie - Iriztu Taberna	3-5
Rayo Aldeano - Usotz Potroak	3-1
Chapime Dribling - Bikain Akademia	3-2
Rayo Aldeano - Makanaki	6-2

B MULTZOA

Irati STS - D.D.K	8-5
AT Celaya - I.K.P.	7-8
Bin Laden - AKTA	7-6
AC Surcos - Etxinal!	8-4
Etixerat - Azkena You Know	2-6
Koka Junior Basati - Full Duplex	12-2
Abocajarro - D.D.K	4-2

PARTIDUAK

MARTXOAK 9, ZAPATUA. EPAILEAK

10:50: Etixerat - Usotz Potroak. Antolakunt

12:00: Azkena Y K - Aurrera Bolie. Antolaku

13:00: Iriztu taberna - KJ Basati. Antolakun

16:00: AT Celaya - Betrayer. Antolakuntza

17:00: I.K.P - Chap Dribling. Antolakuntza

18:00: Bikain Akad - Bin Laden. Antolakun

MARTXOAK 10, DOMEKA

11:50: Irati STS - Rayo Aldeano. Antolakun

13:00: Goma2 - AC Surcos. Antolakuntza

A TALDEA

Iriztu Taberna

Bikain Akademia

Goma2

Usotz Potroak

Etixerat

AC Surcos

Bin Laden

Koka Junior Basati

B TALDEA

Azkena You Know

Irati STS

AT Celaya

I.K.P

Chapime Dribling

Betrayer

Rayo Aldeano

Aurrera Bolie

SAILKAPENA

A MULTZOA

1. Iriztu Taberna	26	15
2. Chapime Dribling	23	15
3. Bikain Akademia	23	15
4. Betrayer	21	15
5. Goma2	21	15
6. Rayo Aldeano	18	15
7. Usotz Potroak	17	15
8. Aurrera Bolie	16	15
9. Saukelu Scream	15	15
10. Lasagabaster	13	15
11. Estu Ta Larri	12	15
12. Fraguel Gol	10	15
13. Makanaki	9	15
14. Txotx	6	15
15. Maldifa's	3	15
16. Bazar Toki On	0	15

B MULTZOA

1. Azkena You Know	26	14
2. Etixerat	24	14
3. Irati STS	24	14
4. AC Surcos	21	14
5. AT Celaya	20	14
6. Bin Laden	15	14
7. I.K.P	14	14
8. Koka Junior Basati	14	14
9. Komando Alpagat	13	14
10. Abocajarro	12	14
11. D.D.K	9	14
12. AKTA	6	14
13. Full Duplex	5	14
14. Etxinal!	1	14
15. E.G.D	0	14

BIGARREN FASEA ABIAN

AZKEN JARDUNALDIAN EZ ZEN SORPRESARIK IZAN

Lehenengo faseko azken jardunaldian ez zen sorpresa handirik izan, eta A multzoan Rayo Aldeano eta B multzoan Koka Junior Basati eta I.K.P. taldeak sailkatu ziren. Bazar Toki On taldeak, ezer egiteko aukerarik ez zeukalako-edo, ez zen partidura agertu eta txapelketatik kanporatua izango da. Horrez gain, kontuan izan hurrengo jardunaldian aurrera lege berri batzuk izango direla.

ANTOLAKUNTZA ARDURATUKO DA PARTIDUAK EPAITZEAZ

Oraingo asteburutik aurrera, txapelketan parte hartzen duten taldeek lan bat gutxiago egin beharko dute, izan ere, partiduak antolatzailerik epaituko dituzte. Hori dela eta, taldeei lasaitasuna eskatu diete, eta epaileak errespetatu dituztela.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Orioko - Mondra
Erregionala. Zapatuan. 17:00. Orio.

Mondra - Anaitasuna
Ohor gazt. Zapatuan. 10:00. Atxabalpe.

Texas Lasarteerra - Arrasate
2.gazt. Domeka. 10:00. Lasarte.

Arrasate - Aloña Mendi
Ohor Kadete. Zapatua. 12:00. Atxabalpe.

Anaitasuna - Arrasate
Infant. Domekan. 16:30. Azkoitia.

Mondra - Mutriku
Neskak. Zapatuan. 16:30. Atxabalpe.

TRIALSINA

Domekan. 10:30. Udala.

SASKIBALOA

Kenci Arrasate - Askartza
Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripe.
Lacor - Kenci Arrasate
Junior mut. Zapatuan. 16:00. Bergara.
Aloña Mendi - Kenci Arrasate
Junior neska. Zapatuan. 11:00. Oñati.

ESKUBALOA

AGR Arrasate - Bergara

Seniorrak. Domekan. 11:30. Iturripe.

Tolosa - Arrasate

Seniorrak. Domekan. 11:30. Berazubi.

ERRUGBIA

Sestao - Arrasate

Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Sestao.

EMAITZAK

ERRUGBIA
Seniorrak: Arrasate - Irun. 31-22

ESKUBALOA
Seniorrak: Legazpi - AGR Arrasate. 27-24
Seniorrak: Arrasate - Donibane. 27-25

SASKIBALOA
Seniorrak: Euzko Euzki - Kenci Arrasate. 101-90

FUTBOLA

Erregionala: Mondra - Amaikak Bat. 3-0
Ohor gazt: Pasajes - Mondra. 2-1
2. gazt: Arrasate - Donibane. 2-2
Ohor kadete: Zumaia - Arrasate. 2-2

ELKARRIZKETA

AITOR OLEA/ORGANO JOTZAILEA

“Zirrara eta errespetua ematen dit Lekeitioko parrokiako organoak”

ARRASATE IRRATIA

Aitor Olea 32 urteko arrasatearrak urte mordera daramatza Lekeitioko parrokiaren astebururo organoa jotzen. Elizkizunetan organoa jotzeaz gain, iaz, Durangoko azokan organoarekin grabatutako diskoa kaleratu zuen.

Arrasatearra izanda, noiz eta zelan hasi zinen organoa jotzen Lekeitioko parrokiaren?

Horrek azalpena dauka: astebururo joaten naiz Lekeitiora, ama hango ingurukoa delako. Lekeitio ez zeukaten organistarik, baina oso organo bikaina daukate. Hala, duela hamabi urte hango organoa jotzen hasi nintzen asteburuetan.

Duela hamabi urte organoa jotzen ikasten ari zinen ala dagoeneko bazenekien ondo jotzen?

Sasoi hartan organoa jotzen ikasten nengibilen. Aurretik, Arrasaten, pianoa eta solfeoa ikasi nuen. Azterketak egitera Donostiara joaten nintzen, hango kontserbatoriora, hain justu ere. Gerora, Baionan ere izan naiz organoa jotzen ikasten.

Hortaz, hantxe ikasi eta, zelanbait esanda, Lekeitioko parrokiaren plaza atera zenuen. Zelan ateratzen da organista plaza gaur egun?

Plaza ez da lehenengo moduan oposizio bidez ateratzen. Han, Lekeitio, ez zegoen organistarik ez koro zuzendaririk. Hala, neu aukeratu ninduten organoa jotzeko eta igandeetako eta elizkizunetako musikaz arduratzeko. Hain justu ere, 1988. urtean hasi nintzen.

1988. urtetik gaur egunera arte Lekeitioko parrokiako organoa astebururo jo izan duzu? Gustura joko duzu, ezta?

Bai, asteburu gehienetan bai, behinik behin. Astebururo joaten naiz Lekeitiora, eta gustura jotzen dut. Gainera, oso organo ona da: XIX. mendeko *Cavaille-coll* bat, 1854. urtekoa, hain justu. Eta organo horrek Euskal Herrian iraultza eragin zuen. Ordu arte organoek ez zeukaten pedalik, teklatuak bakarrik zituzten. Hori dela eta, oso instrumentu berezia da. Gainera, eztaiz hodiak ditu, eta horren eraginez soinu berezia ateratzen du. Zirrara eta errespetua ematen dit organo horrek.

Domeketan jotzen duzu. Zenbat saio egiten dituzu?

Bi, meza nagusian eta hama-bi eta erdietan.

Eta zelan daramazu domekero jo behar edo diziplina hori?

Nik ondo daramat. Ez dit ino-



IKER BARANDIARAN

“Mezan kantu liturgikoak jotzearen truke, nire kantu propioak praktikatzen ditut”

lako arazorik eragiten. Gainera, niretako instrumentu horrekin jotzea gozamina da. Kantu liturgikoez gain, nire kantu propioak praktikatzeko ere balio izaten dit. Horren truke, domeketan jo behar. Dena dela, inprobisazioak meza aurretik edo meza bukaeraren jotzen ditut.

Zuk, bestalde, bestelako kontzertuak ere ematen dituzu...

Bai, organoetarako zuzendutako piezak jotzen ditut kontzertuetan: Bach-enak, Mendelson-enak, Mozart-enak... Jendeak uste du instrumentu hau liturgiarekin lotua dagoela, eta neurri baten egia da, baina horrekin batera kontzertura zabaldutako instrumentua ere bada. Esate baterako,

“Organoa elizarekin lotu izan dute, baina bere erabilera beste eremuetara zabalduz doa”

azkenaldian antzokietan-eta organoa sartzen hasi dira: Bilbon, Miramonen...

Ez da instrumentu oso serioa? Doinua ere gogorra da...

Bueno, Erdi Arotik datorren instrumentua da. Gregorianoaren osten, polifonia sortu zenean, laguntasun xumeak egiteko erabiltzen ohi zen. Baina gero, XIX. mendetik aurrera, organoekin orkestra moldatzen hasi ziren. Bestela, organoekin orkestraren simulazioa egin dezakezu: soinu eta hodi desberdinak dauzka.

Egia da oraindik ere organoaren aurreiritzi asko dagoela, baina oso instrumentu indartsua da, eta doinu-joko handia dauka.

EMAKUME TXOKOA

2002ko martxoaren 8ko egitaraua

Martxoak 8, egubakoitza
19:00etan, manifestazioa izango da. Seber Altube plazatik irtengo da.

20:00etan, luntxa izango da udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Martxoak 9, zapatua
10:00etan, emakume baserritarren eta artisauen azoka izango da Seber Altube plazan.

13:00etan, bertsolariak arituko dira Seber Altube plazan.

Martxoak 10, domeka
19:30ean, Komeriaka antzezlanak izango da Amaia Udal Antzokian.

Martxoak 12, martitzena
19:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan Pilar Yoldik hitzaldia egingo du: La violencia contra las mujeres en las guerras.

Martxoak 14, eguena
21:30ean, zinekluba izango da Amaia Udal Antzokian: El voto es secreto.

Martxoak 21, eguena
15:30ean, Virginia Imazen antzerkia izango da Amaia Udal Antzokian.

21:30ean, zinekluba izango da udaletxeko osoko bilkuren aretoan: Intimidación.



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■



ARGITALPENAK/'PUTZ' ALDIZKARIA

Apokaliftin Kultur Elkarteak 'Putz' aldizkariaren 13. alea kaleratu du

IKER BARANDIARAN

Apokaliftin Kultur Elkarteak hamahirugarren *Putz* erditu berri du. Aldizkariarekin batera, Arrasateko kultura elkarte horrek berak atera duen Asier Serranoren *Hoteleko kontuak* liburua aurkezten dihardute.

Putz aldizkariaren hamahirugarren aleko azalak Gabonetan hain ezagun egin zitzaigun *Kamiltxo* hartz euskaldunaren lagun berria aurkeztu digu. Hura aspaldi Euskal Herriatik AEBetara joandako hartzen oinordekoa da eta *Zakiltxo* izena dauka. Eta *Zakiltxo*-k ere jolastu gura du, jakina. Gainontzean, eta hamahirugarren aleko elkarrizketa nagusiari erreparatuz, J. Oskar Beorlegi iruindarrarekin topo egin dute aldizkariako arduradunek. Musika aldizkarietan eta hainbat egunkarietako gehigarrietan batez ere musikaren gainean idazten ibili den mutil honek *El piloto suicida* izeneko liburua argitaratu duela aprobetxatuz, elkarrizketa sakona egin diote *Putz*-eko kideek.

Horrez gain, eta *Putz*-ekoek hain gustuko dituzten gai bitxiak jarraitzeko, *freak* edo ezohiko pertsonaien inguruko artikulua mardula aurkituko dugu.

J. Oskar Beorlegi 'El Piloto Suicida'-ri elkarrizketa sakona egin diote 'Putz' aldizkarian

Asier Serranoren 'Hoteleko Kontuak' liburuko ipuinekin antzezlan bat egin nahi dute

Haren baitan, Altzoko Migel Joakin Elizegiri buruzko pasarte batzuk ere batu dituzte. Garai baten hain mitifikatuta egon diren *barbie* panpinak eta *barbieklonak* ere berbaiz izan dituzte, besteak beste.

Beste hainbat artikulua umoretsu, komikiak, poema, eta abar batu dituzte, eta, horrekin batera, Paddy Rekalderen liburu berriaren, *Rebel Mayo Coloraoren*, aurrerapen bat ere eskaini digute, baita argitaratu berri

diren disko berezi batzuen kritikak ere. Salgai izango duzue dagoeneko ohiko liburu denda eta tabernetan hiru euroren truke.

ARGITARATUTAKO HIRUGARREN LIBURUA
Egunotan komunikabideen aurrean aurkezten ari diren *Hoteleko Kontuak* ipuin bilduma, Asier Serranok idatzitakoa, Apokaliftin Kultur Elkarteak argitaratu duen hirugarren liburua da. Aurretik, Diego Martiarturen *Hamairu eta bat* eta hainbat idazlek egindako *Ipuin eta koma etilikoak* argitaratu dituzte.

Serranok azaldutakoaren arabera, *Hoteleko Kontuak* liburuko ipuinak "entzuteko eginak" daude. Hori esan zuen aurrez ipuin horiek Euskadi Irratiko hainbat irratsaiotan kontatu zituelako. Gerora, ipuinak moldatu eta liburuan argitaratuak izateko egokitu dituzte. Izan ere, *Hoteleko Kontuak* liburua, ipuinez gain, poemak ere batzen ditu.

Liburuko ipuinak autobiografikoak direla eta bere barnekotasuna agerian uzten oso eroso sentitu dela esan zigun Asier Serranok. Liburua antzezlan bihurtu gura dutela esan diote, gainera. Bestalde, Asierrek berehala bakarkako disko bat kaleratuko duela aurreratu zigun.

Dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dute kultura taldeek

IKER BARANDIARAN

Urtero bezalaxe, Arrasateko Udalak epealdia zabaldu du herriko kultura taldeek dirulaguntzak eska ditzaten. Deialdi hori urtean barrena jarduera egonkorra duten kultura taldeei egin die, batik bat.

Arrasateko Udalak, Kultura Sailaren bitartez, herriko kultura elkarteak dirulaguntza eskabideak aurkezteko epea zabaldu du. Esan beharra dago deialdi hori urtean barrena jarduera egonkorra duten elkarteak zuzenduta dagoela, batez ere.

Dirulaguntzak jasotzeko interesa duten herriko kultura taldeek martxoaren 25a baino lehen aurkeztu beharko dituzte euren

dirulaguntza eskabideak. Horrez gain, taldeari buruzko xehetasunak gain, elkartearen beraren izeneko eta aurtengo datu ekonomikoak argi eta garbi erakutsi beharko dira.

ELKARTEAREN DATU EKONOMIKOAK

Horrela, eskabide inprimakia erantsi batera dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte: 2001eko ekintzen memoria, 2001eko gastuen eta sarreraren balantza, 2002ko jardueren egitaraua eta 2002ko gastuen eta sarreraren aurrekontua. Gobernu batzordeak dirulaguntza eskabidea onartu gero, %60 hamabost egunetan jasoko dute. Gainerakoa jasotzeko, berriz, jasotako zatiari dagoen memoria 2002ko azaroaren 6rako aurkeztu beharko dute.



Emakumezkoen bakarrizketak Amaia Udal Antzokian

IKER BARANDIARAN

Martxoaren 8a heldu dela-eta, hainbat ekitaldi antolatzen dihardute Udaleko Emakumearen Kontseiluak eta Udaleko Kultura batzordeak. Domekan, *Komeriaka* lana eskainiko du Tentazioak taldeak.

Tentazioak taldeak antzerkigintzarekin lotutako hainbat lan prestatu ohi ditu, eta duela urte batzuk AEK-k Korrika Kulturalerako eskatuta, bakarrizketa muntaia bat prestatzen hasi zen, *Komeriaka*. Konparazioak proposenak ez badira ere, gaur egun telebistan emititzen duten *El club de la comedia*-ren antzekotasunak ei ditu ikuskizunak. Hasieratik, Euskal Herriko hainbat aktore ezagun hasi ziren antzezenak egiten: Ramon Soroiz, Ane Gabarain, Pantzo Irigarai, Maiken Beitia, Iñaki Beraetxe, Loli Astoreka, Ramon Agirre, Aitzpea Goenaga eta Elena Irureta.

Gerora, martxoaren 8arekin eta egun horrekin lotutako errebendikazioak argudio hartuta, beste muntaia bat prestatzen hasi

ziren Tentazioak taldekoak. Hain horixe da, hain zuzen ere, domekan Amaia Udal Antzokian eskainiko dutena. 19:30etik aurrera Loli Astoreka, Maiken Beitia, Mireia Gabilondo, Aitzpea Goenaga eta Elena Irureta izango dira Amaiaiko taula gainean.

'EMAKUMEZKOENA'

Emakumezkoena izena jarri dute bost emakume horiek bakarrizketa muntaia. Bakarrizketa ardura dion zerbaitekin abiatu da, sekretu bat kontatuko duela bezala. Psikodramatik gabe, fikzio umoretsua egingo dute, eta hortik aurrera, seguruenik komeriak.

Laburbilduta, Loli Astorek oso argi utzi nahi du euskal herriak dela eta ez baserriak. Elena Irureta etxetik irteko behar du; Aitzpea Goenagak bere arazoa zein den ez daki oraindik; Mireia Gabilondok gizonen inguruko hausnarketa egingo du; eta Maiken Beitia bere euskaldun berritasunarekin oso arduratuta dago. Domekan, 19:30ean Amaian. Sarrera, zazpi euro, eta gazte txartelarekin, sei.

E, TXO!

GUREGAIK / PERKUSIOA

TXATXILI, BEGIRALE BILA
Txatxilipurdi 2002ko udalekuak prestatzen hasi da. Udalekuan begirale izateko interesa duzenok, bidali curriculum Pablo Urangako egoitzara (6. zenb.) edo deitu 943 771739 telefono zenbakira. Derrigorrezkoa da 18 urte baino nagusiagoa izatea, umore ona izatea, euskaraz berba egiteko gaitasuna izatea eta Txatxilipurdik antolatzen dituen eragileen heziketa saioetan parte hartzea.

LUDOTEKA IBILTARIA
Bihar, Txatxilipurdiren ludoteka ibiltaria Erguingo Herri Eskolan egongo da 11:00etatik aurrera.

TXATXILIPURDIKO BATZARRA
Txatxilipurdi elkarteak batzar orokorra egingo du martxoaren 15ean, 19:00etan, AEDko tabernan. Hantxe agertzeko gonbidapena egiten diete Txatxilipurdikoek bazkide eta partaide guztiei.

MUSIKA ZUZENEAN
Gaur, egubakoitza, Donostiako talde bik kontzertua eskainiko dute gaztetxean 22:00etatik aurrera: Señor No eta Nuevo Catecismo Catolico taldeek, hain zuzen. Señor No taldekoek, primizian, euren *Siempre te diré que no* disko berriko kantuek lehenengo aldiz joko dituzte. Nuevo Catecismo Catolico taldekoek, berri, abenduan kaleratu zuten *Scarred for life* diskoa aurkeztuko dute. Hortaz, punk-rock eta rock-and-roll doinuak gaur gauean gaztetxean.
Bihar, zapatua, 22:30ean, gaztetxean baita ere, Gasteizko Mala Imagen eta Burgosko Biolentos taldeek kontzertua emango dute. Epe laburrera beste kontzertu batzuk iragarriko dituzte.

Perkusio burrundarak geroago eta gehiago entzuten dira

IKER BARANDIARAN

Azkenaldian gai hippyak lantzen ari garela esango duzue, baina gazteen artean geroago eta hedatuago dago perkusioaren zaletasuna. Beste instrumentu batzuekin baino zaletasun handiagoa dago.

Egia esan, Arrasaten perkusioaren zaletasuna piztu izanaren errudun edo arduradun nagusia Iñaki Bruña da. Noizbait herrian *djembe* gutxi batzuk ikusten baziren ere, 90eko hamarkadan Iñaki Arrasateko gaztetxean perkusio ikastaroak antolatzen hasi zenetik hona hazi egin da zaletasun hori herrian, eta ibarrean.

Gero, gaztetxetik -eta Arrasateko Udaleko Gazte Sailaren

Uda partean, ohikoa da Monterrongo inguruetan jendea perkusioa jotzen entzutea

bitartez- Gazteluondora igarozen, baina ikastaroek jarraitu egin zuten eta *djembe*-ak edo antzekoak erabiltzeko ohitura zabaldu egin zen. Nahiko ohikoa da, esaterako, uda sasoiaren Monterronen edo Kondekuan bertan danbor edo *djembe* hotsak entzutea, baita Udala aldean ere.



Arrasaten perkusioa ikasitako batzuek zuzeneko talde bat sortu zuten.

Duela gutxi arte, herritarrek hiriburuera jotzen zuten *djembe*-ak erostera. Egun, ordea, erra-

zagoa da horrelakoak eskuratzea, eta Arrasateko erdialdean ere eros daitezke horrelakoak.

LOTSABARIK / Maialen Fernández

“Astronauta izatea gustatuko litzaidake”

IKER BARANDIARAN

Maialenek lotsatia dela esan digu, baina ez daukagu hain argi. Bestalde, txikitan, gauza asko izan gura zuen, eta bera den moduko laguntzailea izanda, baliteke horrelako lanen bat lortzea.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Gauza asko. Astronauta, suhiltzaile eta postari. Astronauta, izarrak eta mundu hori beti gustatu izan zaidalako. Bestela, suhiltzaile eta postari, jendea laguntzarren-edo. Zeinek daki, agian etorkizunean halako lanbideren bat izango dut.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Gustuko dudan zerbaiten lanean ibili gura nuke. Ezkondata egongo ote naizen, eta abar ez dakit. Mondragoen gustura bizi izango nintzateke.

• Zein da, zure ustez, ađin ideala?

Momentuaren arabera. Adin guztiek dute alde ona.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Pozik bizitzeari. Horrez gain, familiaria eta lagunei.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Beste gauza batzuen artean, euskarak eta Euskal herriak bizi duten egoerak.

• Eta zerk ematen dizu lotsa?

Gauza askok, adibidez, elkarriketa hau egiteak.

• Zure bertute bat? Eta alde txarraren bat?

Laguntzeko gertu egoten naiz, baina ez naiz batere puntuala.

• Zer falta zaio Arrasateri gazteendako?

Kulturari dagokionez, erakargarriagoak diren gauza gehiago. Antzerkia, esaterako.

• Zure gorputzeko atal gustukoena?

Hanketako behatzak. Atzamarra ez ditut gustuko, baina behatzak betidanik.

• Jendeari zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Begiei, asko esaten dute-eta.



ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergoko lehenengo maila • ZALETASUNAK: Kirola egitea eta musika entzutea LIBURU BAT: 'La calle de la Judería' • FILM BAT: 'Braveheart' • MUSIKA TALDEA: Denetarik entzuten dut • KIROL TALDEA: Reala

ASESORIA ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxes: 943 79 73 00



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



LANDALUZE

HARATEGIA URDAITEGIA

ESPEZIALITATEA: ETXKO TRIPAKIAK

ITURRIOTZ KALEA. 7 TEL. 943 79 14 86

ARRASATE

BEHEKODENDATIK

Jorge Markiegi Areitioagurtea

MARKIEGI DENDAKUE

XABIER URZELAI

Markiegi erropa dendie 1960ko urtarrillaren 2xen zabaldu zuan, eta Jorge 1986xen egin zuan dendia kargu, lehenago be aittari lagunketan ibiltzen zana. Mondragoetar hau Bilbora jueteketan harrapau dot, lan konturen bat euken-eta egituko. Asko biajetan dau, erropa barrixek ikusteko.

Amets bat?

Zoriontsu bizi izetie.

Eta amets txar bat?

Familixiari gauza txarren bat pasetie.

Egin dozun azken biajie?

Bartzelonara, lan kontuengatik.

Txartel horixe, zeñei?

Politikuei. Asko prometiduten daue, eta gero...

Eta gorrixue?

Umiez eta, jeneralien, jende ahulaz aprobetxetan dan edozeñei; bioladoriei-eta.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

Tomates verdes fritos eta *A propósito de Henry / Quién se ha llevado mi queso* / Taldie desagertu egin bazan be, Supertramp.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai. Legalizau ezker, horren atzian daguen negozio baltza desagertu egingo litzake.

Eta prostituziñue?

Hori be bai. Profesiño zaharrena dala esaten daue, hortaz...

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Tabernetako txikiteue.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?


Trafikuaren arazue. Eta herrixe garbixago eukiko neuke, baiñe hori herritarron lana be bada...

Eta lehendakari izengo bazitze?

Alderdi politiko euskaldunak batzen ahaleginduko nitzake. Hamengue defendidu gura badogu, elkartute izen biherko da.

Etxeko zapatillak ala zapatak?

Kalien zapatak, etxien zapati-



X.U.

"Emakume asko etorten die gizonandako erropak erostera. Gaztiengan hori aldatu egin da"

llak.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Iguel txarto dago esatie, baiñe geure aitte. Aitte izetiez gainera, lagune be izen zan, eta sekulako konsejuek emuten eusten.

Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Miguel Indurain.

Tranpan ibiltteketan norbaittekin, zeñekin?

Ez nitzake tranpan ibilliko, neure andrie asko maitte dot-eta (Emaztie aurrien daguela egin dutzet entrebistie).

Gizonok modan jueten gare?

Baietz esango neuke. Geruago eta gehixago, gainera.

"Aurten, bakerue asko eruengo da. Eta, horrekin batera, kamiseta motzak eta estuek be ikusiko die"

Bezero moduen, gizonak ala emakumiek gurago?

Egixe esan, emakume asko etorten da gizonandako erropak erostera. Gaztiek neskalagunakin etorten die, eta askotan neskiek esaten dauena erosten dau mutillek.

Trajie da elegante jueteko erropa egokixena?

Hori relatibue da. Trajiaz juen zeinke, eta txarto juen, eta bakero batzuekin juen, eta elegante egon. Neure ustez, elegantzia ez da traje batekin neurketan.

Aurten ze erropa salduko da?

Bakero asko, klase askotakuek. Eta kamisetak eruengo die, oin artekuek baiño estuagiek.

NIREBIDAIAHURA/ Andoni Orobengoa

Eskoziara / 1997ko urritik 1998ko azarora arte

Andonik Ingeniaritza ikasi zuen Arrasaten, eta ibas ketak biribiltzeko Eskoziara joan zen master bere egitera. Argi dauka urtebete luzeko egonaldia bere bizitzan sekulako garrantzia izan duela. Izan ere, han bizi izandakoak eta ikasitakoak ez dira etxetik ikasten. Andonirendako, gaur egungo gazteek ikasgai derrigor egin beharko lukete: mundologia, hain zuzen Kanpoan egotea, zure kontu gauzak egitea, atzerritarrekin bizi izatera ohitzea...

Andonirendako, lehenengo hiru hilabeteak izaten dira erabakigarriak: "Hara joan eta argi izan behar duzu atzerritarra zu zeu zarela, eta jendea ezagutu gura baduzu, lehenengo ahalegina zuk zeuk egin beharko duzula. Hasiera batek gauza guztiei alde txarra besterik ikusten ez badiezu, hobeto etxean geratu". Andoni eskoziar birekin eta ipar irlandar batekin izan zen etxebizitza baten. "Etxe hura sekulakoa zen. Egutero jende berria egoten zen. Jende mordoia ezagutu genuen."

Lehenengo hilabeteetan hizkuntza benetako traba izaten zela dio Andonik. Gauza asko esan gura, baina askotan ezin asmatu zelan esan: "Hala ere, komunikatzerako orduan, hizkuntzaz gain, beste hainbat baliabide ere badauzkagu, eta horiek erabiltzeko lotsa guztiak etxean utzi behar dira. Azken baten, irribarre bat leku guztietan da irribarre".

Lehen esan bezala, lehenengo hilabeteak erabakigarriak izaten dira, eta Andonik primeran pasatu zituen. Hortaz, Gabonetan Arrasatera bueltatu zenean, ez zuen arazo handirik izan berriro Eskoziara itzultzeko. Oraindik gauza asko daude kontatzeko; etxetean egiten zireten party-ak, Eskoziako parrandak, hantxe lanean bizi izandako abenturak. Datorren asterako utziko dugu.



"Kanpora joatean argi izan behar da zu zarela atzerritarra"

"Gure etxean beti izaten zen ezagutzen ez genuen norbait"

XABIER URZELAI



Andoni Orobengoa Highlands-etan ateratako argazki batean.



ALDEDI
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak


Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 - 79 78 14
ARRASATE

ZAHARRAREN ETXETIK



ARTXIBOA

Alzheimerrek geroago eta jende gehiago kaltetu eta arduratzen du joan den aspaldian.

Alzheimerra: haziz doan endekapen dementziaren aurrean zer egin?

IKER BARANDIARAN

Alzheimerra haziz doan dementzia da eta, batez ere, jende nagusiari egiten dio kalte. Gaixotasun horren erruz, oroimena galdu eta ohiko ariketa edo gauzak egiteari uzten diote gaixoek, ezer egiteko gai ez diren arte.

Medikuak eta adituak arduratuta daude, nondik sortzen den ez dakiten dementzia hori haziz doalako. Era berean, batzuen usteetan, EAEn bizi diren 65 urtetik gorako %5ek alzheimer gaixotasuna sufritzen dute. Eta, diotenez, hemendik urte batzuetara gaixoen portzentajea gehiago igoko da. Hala ere, azkeneko ikerketek aditzera eman dutenez, jende gazteagoaren artean ere antzeman da gaixotasun hori.

ENDEKAPENEZKO GAIKOTASUNA

Alzheimerra endekapenezko gaixotasuna da. Poliki-poliki burmuineko zelulak suntsitzen ditu. Lehenik eta behin, oroimenari egiten dio kalte, eta, horrekin

batera, gaixoaren osasunak ere txarrerantz egiten du. Adituek ez dakite zelan edo zerk sortzen duen alzheimer gaitza, eta, oraindik orain, ez dute alzheimerra sendatzeko erremediorik aurkitu. Izan ere, alzheimerraren inguruko ikerketek oso emaitza gutxi eman dituzte orain arte.

Oroimena galdu eta gai ez izan

Gaitz hori hartzen dutenek poliki-poliki oroimena galduz joaten dira, muturreko egoerara heldu arte. Senideek oroimen falta nabaritzen gero, oso komenigarria da ustezko gaixoa medikuarengana bidaltzea, dementzia probak egitera.

Oraindik ez du sendabiderik, eta ahalik eta lasterren zaintzen hastea komeni da.

Batzuen usteetan, burmuina geroago eta gehiago erabili, neuronak orduan eta konektatuago egoten dira. Hortaz, gaixotasun hori hobeto saihestu ahal izaten da.

AFAGIREN LAGUNTZA DEBAGOIENEAN

Debagoienez AFAGI elkarte dago: alzheimerra sufritzen duten gaixoen senitarteko edo lagunei laguntza eskaintzen die. Arrasaten bertan du egoitza AFAGIK. Hemendik aurrera, Arrasate pasealekuko 3. eta 5. atarietan, egubakoitzero hartuko dituzte senitartekoak, 16:00etatik 18:00etara. Hitzordua hartzeko, 655 71 18 37 telefonora deitu behar du dute premia dutenek.

Bestalde, AFAGIK, Aita Meniren laguntzarekin, elkarri laguntzeko talde bat sortu gura du ibar osorako. Ekimen horren bitartez, eta psikologo baten laguntzarekin, alzheimer dute gaixoak zelan zaindu, gaitzaren nondik norakoak azaldu, gaixotasun horren aldiak azaldu eta euren arteko esperientziak elkartrukatu dituzte.

KINTOOSPAKIZUNAK

1951ko eta 1958ko kintoek urteko batzarrak egin zituzten zapatuan

Bi kinto ospakizun izan ziren Arrasaten aurreko asteburuan. Hain justu ere, 1951ko eta 1958ko kintoek joan den zapatuan izan zituzten euren ospakizun nagusiak. 1951ko kintoek -hau da, 1930. urtean jaiotakoek- bazkaria egin zuten Musakolako Hostalean. Eta 1958ko kintoek -hau

da, 1937. urtean jaiotakoek- Udalpe elkartearen izan zuten bazkaria.

Giro ederra izan zuten bi taldeek, eta, kasualitatez-edo, meza bera entzun zuten San Juan Bautista parrokiaren. Mezatik irtetean, argazkirako posatu zuten bi taldeek.



USOA AGIRRE

Irudian, 1930. urtean jaiotako zenbait herritar, 1951ko kintoak.



USOA AGIRRE

Irudian, 1937. urtean jaiotako zenbait herritar, 1958ko kintoak.

JAKINGARRIAK

Musakolako egoitzako kuota

Joan den egubakoitzean, batzar orokorra egin zuten Musakolako zahar egoitzakoek. Iazko balantzea, aurtengo aurrekontuak eta beste gai batzuk izan zituzten berbagai. Horien artean, Musakolako zaharren egoitza berria San Antolingo eskolen eraikinean jarriko dutela jakinarazi zieten egoitzako arduradunek bazkideei.

Bestalde, hilabete osoan bazkideen kuotak jasoko dituzte, astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 19:00etara. Bazkide bakoitzak hiru euro ordaindu beharko ditu.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Yagoba

Larrañaga Oregi

ARKITEKTO TEKNIKOA

- Obra zuzendaritza.
- Eraberritze eta birgaitze proiektuak.
- Informe teknikoak eta jarduera espedienteak.

Arrasate pasealekua 13, behea
Tel./Faxa: 943 79 26 88 ARRASATE

HIES

BERRI

Tel.: 943 79 26 99

Altzariak

Diseinua

Apainketa

M

ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07



ARRASATE
Jesus Mari Luengo
Otsailaren 25ean, 24 urte.
Zorionak! Koadrilakoen partetik.



ARRASATE
Oier Arana
Martxoaren 7an, 5 urte.
Zorionak, Pitufu! Etxeko-
en partetik.



ARRASATE
Nerea Erdabide
Martxoaren 8an, 13 urte.
Zorionak! Xabierren, Ane-
ren eta Ikerren partetik.



ARRASATE
Amaia Erdabide
Martxoaren 8an, 13 urte.
Zorionak! Xabierren, Ane-
ren eta Ikerren partetik.



ARRASATE
Eneritz Vázquez
Martxoaren 8an, 21 urte.
Zorionak! Lagunen parte-
tik.



ARRASATE
Sonia Zubizarreta
Martxoaren 14an, urtebe-
tetzeari. Zorionak! Garazi-
ren eta Mikelen partetik.



ARRASATE
Markel Morón
Martxoaren 8an, 4 urte.
Zorionak! Familiaren par-
tetik.



ARRASATE
Jokin Aspiazu
Martxoaren 10ean, 9 urte.
Zorionak! Jatorri-
kaia etorbideko jatorri-
zorionak! Eli eta etxeko-
en partetik.



ARRASATE
Aitzol Azkarraga
Martxoaren 8an, 13 urte.
Zorionak! Xabi Pavón, Aitor
Iregi eta Xabi Vallina.



ARRASATE
Andoni Aginalde
Martxoaren 6an, 9 urte.
Zorionak, etxeko guztion
partetik.



ARRASATE
Lorea Azkarate
Martxoaren 8an, 21 urte.
Zorionak, prexioxa! Nerea,
Oihana eta Arantxita.



ARRASATE
Iker Langarika
Martxoaren 8an, urtebe-
tetzeari. Zorionak! Izeba
Maria eta lehengusina.



ARRASATE
Jon Ander Beitia
Martxoaren 8an, 31 urte.
Zorionak! Ainhoa eta Lei-
re.

Adi!

Hurrengo zenbakian, **martxoaren 9tik 22ra** bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu. **Argazkiak martitzenera arte jasoko dira ARRASATE PRESSko egoitzan.**



**Zorion itzazu zure lagun
eta senitartekoak.**

Zatoz Arrasate Pressera argazki
batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.



URONDO
Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Argazkian, Aldibiko gerente Jose Maria Barrutiabengoa, Agustin Zaballa irabazlea eta Javier Zumelaga, Aldibiko zuzendari komertziala.

Aldibi

ARRASATE • Zigarrola 1-1. pabiloia • 943 71 20 02

Aurkezpen ekitaldia martxoaren 1ean izan zen, eta Nissan Primera ikustera joan zirenen artean Panasonic GS1 bideokamera digitala zozketatu zuten. **Agustin Zaballa Aspuru** suertatu zen irabazle.



NISSAN PRIMERA berria Aldibin

Primera berria da Nissan-eko espiritu berritzailearen abiapuntua. Diseinu aurrerakoiena eta teknologia berritzailea, gidariaren pertsonalitatea islatzeko gai den autoaren zerbitzura.

Erosotasuna:

Kontsola nagusi modernoa N-FORM sistema eksklusiboarekin. Aginte-tresnen funtzio berberak kontrolatzeko mugimendu gutxiago, %50 gutxiago.

· Audioa · Bidaia-ordenagailua · Atzeko ikuspegiko kamera · Satellite bidezko DVD nabigatzailea · Euri sentsore-dun haizetako-garbigailua · Aire-girogailua...

Segurtasuna:

Primera berria bere egonkortasunagatik eta fidagarritasunagatik nabarmentzen da. Gainera, segurtasun pasiboko ekipamendu osoa dakar.

· Egonkortasuneko Programa Elektronikoa (ESP) · Autoen arteko distantzia neurtzeko kontrol inteligentea (ICC) · Gurpilak ez blokeatzeko lau kanaleko sistema (ABS), balaztatzea banatzeko sistema elektronikoa (EBD) eta Nissan-eko balaztatze asistentzia (NBA) · Aurreko, alboko eta gortinako aire-poltsak · Buru-euskarri aktiboak · Estructura indartuak · Telefono-sistema integratua.

Prestazioak:

Abangoardiako teknologia gasolinazko motorretan –NCVCS sarrerako sistema eksklusiboarekin– eta injezio zuzeneko eta Common Rail-eko Turbo Diesel 2.2. autoetan.

¿Irakurri besterik ez duzu egingo, ala probatu egingo duzu?



PRIMERA. Intelgentzia forma berria.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko martxoaren 8a / 18. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorala Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Hiru bertsolari aramaioar Arabako Bertsolari Txapelketara

UBANE MADERA

Manex Agirre, Lierni Altuna eta Andere Arriolabengoa aramaioarrak Arabako Bertsolari Txapelketako kanporaketetan izango dira. Liernik eta Anderek bihar, zapatua, dute kanporaketa. Manexek, berriz, martxoaren 23an. Kanporaketa bakoitzetik lau lagun sailkatuko dira final-aurreetarako.

Kanporaketa bakoitzean sei lagun arituko dira norgehiagokan. Hortaz, bihar, zapatua, Lierni Altuna eta Andere Arriolabengoa beste lau lagunekin arituko dira lehian, 19:00etatik aurrera. Gero, martxoaren 23an, Manex Agirrek gauza bera egin beharko du bes-

te bost lagunena kontra, Lapuebla de Labarcan, hori ere 19:00etatik aurrera. Esan bezala, parte hartuko duten hamabi bertsolarien artean, zortzi sailkatuko dira final-aurreetarako. Oihane Perea bertsolariak argitu digunez, puntuazioaren arabera egingo dute sailkapen hori. Ofizioki bi bertso zortziko txikian eta beste bi zortziko handian, oinak emanda bertso bat eta hitza emanda beste bertso bat bota beharko dituzte parte hartzaileek.

Aramaioarrek, fin ibiliz gero, finalerdietan parte hartzeko aukera izango dute. Bi saio izango dituzte finalerdietan. Bata, Aramaion bertan jokatu da, eta bestea, Araian. Aramaioko saioa apirilaren 13an izango da,

kultura etxean: iaz finalean parte hartu zuten Ruben Sánchez eta Asier Otamendi bertsolari gasteiztarrek eta aurtengo kanporaketetatik sailkatutako lau bertsolari hartuko dute parte. Araiako saioa, berriz, apirilaren 20an izango da: Oihane Perea eta Juan Mari Juaristi bertsolariekin batera, aurtengo kanporaketetan sailkatutako beste lau bertsolariak arituko dira.

Eta gero, horietatik sei onenek finala jokatu dute. Gasteizen izango da hori, maiatzaren 11n, Printzipal antzokian. Jakina, handik irtengo da aurtengo Arabako txapelduna.

HIRUGARREN URTEA

Manex Agirre, Lierni Altuna eta Andere Arriolabengoa aramaioarrak hirugarren aldiz joango dira aurten Arabako Bertsolari Txapelketara. Hirurak Aramaioko Bertso Eskolan ikasitakoak dira. Are gehiago, gaur egun, Manex Agirre da bertso eskolako irakasleetako bat, Oihane Pereaarekin batera. Manexek adierazi digunez, bi talde dituzte herrian: gaztetxoez osatutako bat eta nagusiagoz osatutako beste bat. Gutxi gorabehera hamar-hamabi bat ikasle, guztira. Manexen hitzetan, "ez dakit zaletasunik duten, baina zarata ateratzeko gogo handia dute eta oso motibazio ona. Hortaz, hemendik zerbait irtengo dela uste dut".

Bitartean, herriko bertsolari nagusiagoei begiratuko diegu eta ea, bada, oraingo urtean zorte ona duten Arabako Txapelketan.



ARTXIBOA

Finalerdietako saio bat Aramaion jokatu dute, apirilaren 13an, kultura etxean.



Istripu ikusgarria Aramaiora bidean

Argazkiko bi ibilgailuek (Bilbon matrikulatutako Ford Scort bat eta Logroñon matrikulatutako Ford Transit furgoneta bat) aurrez aurre jo zuten joan den martitzenean Aramaiora bidean. Dirudienez, eguraldia izan zen istripuaren arrazoia. Izan ere, martitzenean, euria mara-mara egin zuen, bereziki, goiz partean. Istripuaren ondorioz, lau lagun (Sestaoko hiru gizonak, 17, 18 eta 41 urtekoak, eta Arrasaten bizi den 58 urteko emakume aramaioar bat) Eskualde Ospitalera eraman behar izan zituzten. Guztiak ere zauri arinekin.

LABUR

Paleta Txapelketaren finala, barikuan

Datorren martxoaren 15ean jokatu dute aurtengo Paleta Txapelketaren finala. Aurreko astean, Barandiaran aita-sembleek 35-13 irabazi zieten Azurmendi eta Arriolabengoari. Eta Ojangurenek eta Garaitak 35-13 irabazi zieten Armendarizi eta Orobenguari. Hortaz, Barandiaran aita-sembleek eta Ojangurenek eta Garaitak jokatu dute finala. Azurmendi-Arriolabengoa eta Armendariz-Orobengoa hirugarren postua lortzeko lehian izango dira.

TTUKUN


- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

TOLDOS
LECE C/B

Kataide Industrialdea, 14 Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45

Eguzkiari aurre egiten diogu
inork baino hobeto



TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiaiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

DIRULAGUNTZA DEIALDIA

Gizarte Ongintzako Foru Erakundeak ezintasunak edo zailtasunak dituztenen dako dirulaguntza deialdia zabaldu du. Interesatuak apirilaren 2a baino lehen egin beharko dute eskaera. Argibide gehiago Udaleko Gizarte laguntzailearen bulegoan, eguaztenetan, 12:00etatik 15:00etara.

AEROBIC IRAKASLEA

Aramaioko emakume talde batek aerobica egiteko irakaslea behar du. Interesatuok deitu 945 445324 telefonora eta Begoña Etxabegatik galdetu.

ARETO FUTBOLA

Kadete mailako mutilek 10-2 irabazi zieten Baro-Calo Ikastetxekei. Neskek, aldiz, 2-13 galdu zuten Menesianosen kontra. Bihar, zapatua, El Campilloren kontra jokatu dute mutilek 12:00etan, Gasteizen. Neskek, berriz, Legutioaren kontra dute partidua 10:00etan, Legutioan.

ZINEA

Como mola ser mono filma izango da 17:00etan.

NATURA

Pagoak eta lizarrak landatu zituzten Kurtzetan San Martin Eskolako umeeek

Joan den barikuan, Zuhaitz Eguna ospatu zuten Aramaion. San Martin Eskolako zortzi urtetik hamaika urtera arteko ikasleek 25 pago eta bost lizar landatu zituzten Kurtzetako zelai baten. Hori bai, eskolako irakasleak eta basozaina izan zituzten lagun.

Aurrez, neska-mutikoei lur motak, landareak eta landatze motak bereizten ikasten ibili dira eskolan. Eta zuhaitzak landatu eta gero, naturaren eta zuhaitzen gaineko informazio gehiago jaso zuten barikuan. Izan ere, basozainak beste urte batzuetan landatutako zuhaitzak erakutsi eta bakoitzaren gaineko azalpenak eman zizkien herriko neska-mutikoei. Galdera-erantzunen bitartez, haritza, sahatsa, urkia eta pinu motak bereizten ikasi zuten gaztetxoek.



HERRIKO KONTUAK

ANBOTOKO SEÑORIE

Anbotoko Señorie esaten zan asko. Nik eztaitt, bersiño diferentiek egongo die. Esaten bate-rako, pastoriek pe ikusi itten auela. Nik ikusten dot: azala oso dotor, uliek urrezko kolorekuek eta orrazketan-orrazketan ulie. Orrasixe be urrezko kolorekue zan. Eta ibiltten zala batetik bestera, Anboton pasaten auela urie eta gero Aralaren, eta batea eta bestea; eta inkluso ba horrek esan gura auen ikusten auela egunez pastoriek eta gauze jende askok. Esaten auen ba: "han dabil Anbotoko Señorie batetik bestea" holan argixe moruen, esate baetrako, holan izarrak izeten diela batea eta bestea pase-tan dienak. Jentiek pa hori siñix-tu itten auen. Ikusten auen Anbotoko Señorie.

Da batzuk esaten dauie hori zala Salgoko alabie. Eta amak bi alaba aukela ta txarto portau zanez amak maldeziño bat bota eta bialdu auela.

Patkixe Ibabe
'Aramaioko ipuin eta legendak'

BOTE PRONTOAN/ Markel Ormaetxea · Azkoagako auzo-alkatea

“Azkoagan jende dezente gehiago dago orain, eta hemen etxeak egiteko oso eskaera handia dago”

Azkoaga auzoa bisitatu dugu oraingo astean Aramaion. Markel Ormaetxea mundakarra da Azkoagako auzo-alkatea. Nahiz eta itsasotik urrun egon, Azkoagan ondo asko bizi direla kontatu digu Markelek, pribilegiatuak direla:

Zelan aukeratzen da alkatea Azkoagan?

Batzar baten aukeratzen dugu. Auzoko edozein izan daiteke alkate, baina saiatzen gara auzokide bera ez aukeratzen. **Zenbat lagun bizi zarete?** Bi auzo batzen ditugu, Zabola eta Azkoaga. Guztira 100 bat lagun gara. Hogeita hamar bat baserri daude, eta bakarria bizi da baserrietik, ganadua du. **Lehen baino lagun gehiago?**

Bai, dezente gehiago. Gehienak hemengo seme-alabak dira, baina Arrasatetik ere etorri da jendea (bost bat). Etxe berriak egin dira. Eta eskaera handia dago, oso handia.


Eta hobeto?

Bizitasun gehiago dago orain. **Zein lekutan elkartzen zarete?**

Dukiena jatetxea dago eta Untzueta baserri turismoa; horrez gain, elkarte ere badugu: Leizarrondo. Batez ere, txoko hartan elkartzen gara.

Badago leku bereziren bat, pertsona bereziren bat?

Labierna baserriko seme bat gotzaina izan zen Boliviako Cochabamban. Orain dela urte batzuk, baserri zoragarri bat izan zen Azkoagan: Etxebarri. Orain dela 30



urte desmuntatu eta Hondarribira eraman zuten, hain justu, halako artelanak bere horretan babesteko legea atera baino apur bat lehenago; bestela, hemen egongo litzateke...

Zer eskatuko zenioke Udalari?

Egia esan, gaur egun oso ondo gaude. Saneamendua, argindarra eta horrelakoak eginda daude. Untzillarako bidea konpontzea eta gazteendako txokoan ere konponketak egitea gustatuko litzateke. Baina hori eskatuta dugu.

Zer aldatuko zenuke?

Ba, akaso, auzoa apurtxo bat zainduko nuke. Handituz doa, eta horrela segituz gero, Azkoaga-Zabola eta Barajuen kale bakarria izango dira. Hori zainduko nuke.

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

arbolapeta

arrasate

beinke

Garagardo ona, giro hobea

TXIRRITA
Taberna
Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

ERRETRATU ZAHARRA

Txomin
Iturberen
urteurrena

Gaur, martxoak 8 dituen honetan, Txomin Iturbe arrasatearraren hiletan 15. urteurrena bete da. Argazkian ikusten duzuen moduan, sekulako jendetza batu zen egun hartan Arrasaten. Komunikabideek esan zutenez, 45.000 edo 50.000 lagun inguru elkartu ziren.

Txomin Iturbe Arrasateko Etezu-ri baserrian jaio zen, 1943. urteko abenduan. Eta 40 urte zituela, 87ko otsailean, hain zuzen, Aljerian hil zen, auto istripuan.

Sei anai-arrebaren artean lehena izan zen Txomin Iturbe. Mojetan eta San Viatorren egin zituen ikasketak eta 14 urterekin Cerrajeran hasi zen lanean. Enpresaren futbol taldean hasi zen jokatzeko eta gero UDAk fitxatu zuen. Azkenean, Mondra taldera joan zen. Atezain izan zen.

Makina bat bider txilotu zuten (Franco hil bitartean, urtean behin), eta atentatu saiakerak (bost) ere jasan zituen Txomin Iturbek. Hain justu, 1968ko abenduan, legez kanpo zebilen



Unai Dorronsororekin hitzordua zuen. Guardia Zibilak bazekien hori, eta ondorioz, Dorronsoro atxilotu eta Iturbek ihes egin zuen. Horrela, bizimodu klandestinoari ekin zion. Handik gutxira, Maite Ormaetxearekin ezkondu zen eta hiru seme izan zituzten: Iraultza, Arkaitz eta Igortz.

Urte batzuk geroago, ETako zuzendaritzako kide zen Txomin Iturbe, eta Espainiako gobernuarekin izan beharreko balizko elkarrizketarako ordezkaritza izendatu zuten. Baina 1986an, poliziak berriro atxilotu zuen Donibane-Lohizune inguruan eta Librevillera bidali zuten, Gabon

herrialdeko hiriburura. Handik, Aljeriara bidali zuten. Eta 1987ko otsailaren 27an, auto istripuan hil zen.

Argazkia: Batasuna
Berriemailea: Batasuna
Urtea: 1987

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Zigorrola
auzoko
Hostala

Zigorrola auzoko Hostalak makina bat urte ditu, eta urte horietan Musakola auzoa -herri osoaren erritmo berean- hazi egin da. Hazkunde horren testiguetako bat Hostala izan da, eta errepideko eskualdean bakar-bakarrik egotetik, gasolinerak eta lantegi eta biltegi askok protagonismoa kendu diote. Hala ere, denborari bikain egin dio aurre, eta hortxe dirau.



≈ 1960

Argazkia urte hartakoa da, baina Zigorrolako Hostala zaharragoa da. Ordutik hona herrian hainbat hotel egin dituzte.



2002

Gaur egun, Hostaleko tabernan sekulako giroa izaten da. Are eta handiagoa Realeko partidaren ikusteko aukera izaten denean.



Pando Errotuloak


Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak



UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE



AGR
García Ripa
ERREFORMAK S.L.

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfombra
Gortinak, mahai eta aukiak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behea (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Akelarre

Iturriotz 7 • ARRASATE



Eskulanetako eskolak ematen dira. Goizez eta arratsaldez.
Markoak ipintzen ditugu.
Zure eskulanak egiteko behar duzun guztia:

- Zeramikak
- Dekorazioa egurrean
- Erretxinak
- Olio-pinturetarako material guztia
- Margoak
- Pintzelak

Egin zaitez
bazkide orain,
%10eko
deskontuarekin



BASATI TABERNA

Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Traguak

Goizeko 10:00etatik
aurrera zabalik.

Astelehenetik-Ostiralera




GRUPO **RKUZ**

1950-2002



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

